



GOIERRITARRA



**Udazkeneko
fruitua**

Zabale anaiak

Ehun Kilo

KAXIANO

Markos landa

Gelatxo

Fanbaltz

Drindots

Aitzol Mujika


Bittor Aiape

Bertsolariak

Nahi ta nahiez

AGAUTZ

Furunda



Kilometroak

elgoibar

Vrtz

Trikitake!

Elgoibar, urriak 6

Zokoan

Naiara ta Ines

ZIGOR GAZKEZ

Zubipeco Swing

Bedaxagar Urbeltz

TRIKITIXA KONTRAIRO

Takolo, Pirritz, Porrotz

Egan

TRABUKO

Paperetik
Plazara

Lau Behi



ZUBIAURRE Elgoibar



Elgoibarko Ikastola



Ikastolen Elkartea



**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre eta Argider
Mujika

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Ara-
no, Mikel Albisu, Joseba Telle-
ria, Ane Martin, Loinaz Agirre
eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Jon Aizpurua, Andoitz Telleria,
Xabier Urteaga, Etor Mendia,
Eduarne Albizu, Rufino Iraola,
Izaskun Salazar, Gabino Murua,
Pako Zubeldia, Kepa Korta, Jo-
sune Amundarain, Koldo Urres-
tarazu eta Urko Irastorza.

**Fotokonposizio eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9, Oñati)

Tirada: 7.000 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



Yoyes hil zutela 10 urte

Urteurren hori gogoratzeko, duela 10 urte sortutako 'Yoyesen aldeko Herri Batzordea' berrosatu da. Ekintzarik nagusia, Ordiziako aparteko azoka egunean, iluntzeko 8etan egindako kontzentrazioa izan zen. 5 minutuko ixilaldiarekin batera, manifestua irakurri, Imanol kantariaren 'Mendian gora' abestia eta Euzkitzeren bertsoak entzun ahal izan ziren.

"10 urte pasatu dira eta erreflexioa egin beharra dago. Azken boladan bere inguruan arazo korapilatsuak sortu arren, guk ere 'elkarriketa' hitza gureganatu nahi dugu. Baina ez gure arazo larria konpontzeko baliagarri bezala bakarrik, baita gure Gizartearen hain zabaldua dagoen elkar ezin eramana bideratzeko. 'Dena balio' duen iritzia lurperatu eta arazoa-ri, dagozkion 'oinarriko

ikuspuntua' ipini nahi dizkiogu", dio irakurritako manifestuak. Ordizian Yoyesen hilketaren aurretik eta ondoren 10 lagun hil dituztela azpimarratzen du manifestuak: Vergara, Perez de Viñaspre, Imaz, Mestre, Peña, Mateo Pastor, Colombo, Mateo Melero, Aranburu eta Usabiaga.

Urte bukaera bitartean, erreflexiorako 3 mahainguru egingo dira Ordizian. Gaiak: 10 urteetan nola joan diren mugimendu sozialak; biolentzia Euskal Herrian; eta biolentziaren amaiera Euskal Herrian. *"Gai hauei buruzko gidoiak egingo dira eta ordiziar guztiei banatuko zaizkie, bakoitzak bere erreflexioa egin dezan",* esan digu Kepa Korta batzordeko kidea. Zine Foruma egiteko asmoa ere badu Yoyesen aldeko Herri Batzordeak.

BOTA BERTSOA



Joxepa Madariaga

Buzoia

**Doinua: frantses euskal-
dunarena**

Eguerdiero bete beteazaldu ohi zait buzoia, hango liburu, hango sobrea, plastikoa ta kartoia, paper urdina, paper gorria, horia eta marroia; oraindik ez dit inork bidali txeke batean miloia...

Buzoi barruan izaten diren "sorpresak" beharko aipa: aldizkaritan Goierritarra, Argia ta Pyrenaika, Kutxaren bidez Iberdrolatik to! ordaintzeko gonbita, kobratzetako gutuna denez beti ohi dut madarika.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Baliarraindik

Idatzi honen bidez, gure haserrea adierazi nahi genioke irakurle orori aurten gertatu zaiguna adieraziz.

Herri jaietarako, abuztuaren 16erako konkretuki, Bittor Aiaperen Kantaldia iragarrita zegoen gaueko 11etarako. Kantaldia aurre-eramateko soinu ekipoa alokatu genuen Arrasateko Soinua eta Donostiako Sonotec etxeekin. Etxe hauek gaueko 9etarako dena prest egongo zela agindu ziguten egun berean. Gaueko 9ak, 10ak, 11k eta 12ak... eta inor ageri ez. Hori bai, Bittor Aiape kantaria 9etarako etorri zen. Jendea inguruan, kioskoa hutsik eta hura zen egoera...

Genituen telefonoetara deitu eta erantzunik ez, azkenean... gaueko 12.15etan

hitz egitea lortu ondoren, haxe izan zen emandako arrazoia: beste toki batean gaude eta ez gara joango, esan iezaiozue jendeari gezurra, istripua izan dugula.

Bai, bai... ondo irakurri duzue, horixe izan zen entzun behar izan genuena. Kantaldia inguratu zen jendeari gertatu zena garbi asko esan ondoren Bittor etxera joan zen ezer egiterik izan gabe.

Soinua eta Sonotec etxei esan nahi diegu, hori ez dela giza legez jokatzeari diru gosez baizik, Herri Txikiak ez gaudela alperrik eta aurrerantzean aintzakotzat hartu gaitzela.

Eta azkenik, bertaratu zen jendeari eskerrik asko egoera ulertu eta onartu zutelako.

Baliarraingo herria

Besteek esana



“

Biolentziari eman zaizkion erantzunak biolentoak izan dira. Poliziak eta Ertzaintzak biolentzia besterik ez dute erabili. Ikusten dudana da, guztiok, disimulu gehiagorekin, hipokresia gehiagorekin, biolentzian parte hartu dugula eta gaur egungo espirala sortu dugu”.

ERRAMUN IRASTORZA

Ordiziako Elkarki-ko kidea
EL DIARIO VASCO

“

Iraileko azoka bertako produktuen olinpiada izaten da, Euskadiko onenak erakusten baitira”.

JESUS MARI LARIZ

Ordiziako zinegotzia
EL DIARIO VASCO



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN

VOLVO



TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elekttrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN



MUJIKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

TXANDAKA

Zubiaren erdian

Sasoi txarrean jaioak omen gara gu, jaiotzeko sasoi txarrik eta hiltzeko onik balego bezala. Izatekotan ere, toki onak eta txarrak. Jaiotako tokiaren arabera, mundu borobil honetan, gehiegikerian itotzen ari dira gutxi batzuk eta gutxiegiak estutzen die lepoa gehienei. Mundu zabal borobila ez balitz, beste modu batekoa izango litzatekeela pentsatzea da konklusiorik errazena, baina egia hau da: mundua borobila izan ez balitz, ez zatekeen izan ere egingo. Ez dira arrazoi filosofikoak, fisikoak baizik. Era berean: gu sasoi honetakoak izan ez bagina, ez ginatekeen izango.

Jakina, gure aroak problema asko izan ditu eta izaten jarraituko du. Batez ere, aldaketen aroan bizi izan gara: aldaketa teknologiko, soziologiko, ideologiko, politikoak. Gure aurreko belaunaldia-rengandik gure hurrengoarengana aldaketa horiek garraiatzeko serbitu duen zubia gara.

Derrigorrak gu larre motxean haztera eta heztera behartu zituen gure gurasoak. Eskubide guztiak gurasoenak ziren, bestalde. Mundua hankaz gora ipintzeko asmoz, geuk nahita aldatu genuen premisa hori. Handik aurrera seme-alabenak ziren eskubideak, eta geu, ezer gabe, zubian geratu ginen; ez dut esaten zubipean. Hori ez, izan ere lana erruz zen garaia egokitu zitzaigun eta gure status sozialak gora egin zuen. Gure ondorengoak status horretara ohitu dira, eta ez daude gu bezain larre motxean zailduak. Baina etorkizunak zer dio? Ondo ohituriko gure kumeak ez al dira gaizki pasa beharrean aurkituko? Eta geu?

Rufino Iraola



Mondejuak ala odolkiak dituzu gustokoango?



Urko Iturriotz

19 urte, ikaslea

Beasaingoa

Odolkiak, baina Santafetan mondejuak ere jaten ditut Zaldibian. Odolkia negu aldean jaten dut, babarrunekin nahastuta.

Egoitz Garmendia

20 urte, ikaslea

lazkaotarra

Biak, baina odolkia nahiago dut. Ez dut gehiegi jaten, amak ez du eta jar-tzen. Mondejuak jateko ohiturarik ez dugu, baina jatekotan zuria jaten dugu, beltzik ez dut probatu.



Bizente Sainz

53 urte, irakaslea

Zaldibikoa

Bere garaian mondejua, hilabete batez bakarrik izaten dira eta. Bestela odolkiak jaten ditugu. Mondejuak zuriak bakarrik, Zaldibian ez da beltzik egiten.

URBITARTE sagardotegia



- Egunero irekita, nahiz eta sagardotegi denboraldia bukatu
- Sagardotegiko menuaz aparte arraina ere egongo da
- Berezitasuna txuleta eta sahieskietan

Erreserba telefonoa: 18 01 19

Ergoiena Auzoa ATAUN

ORDIZIA AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76

Erakusketa
Sukaldeko tresnak



Mariaratz, 4

Tfnoa.: 88 86 84

BEASAIN

UNTXUNDEI garajea



OSINALDE karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06

ORMAIZTEGI

ZINEA

BEASAIN:

Urriak 3, 'La carnaza' eta 'Surprise', Usurbe Antzokian, 21:00etan.

BEASAIN

'Jaula de grillos' Ostirala 20: 22:15; larunbata 21: 19:30 - 22:15; igandea 22: 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 23: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Barb wire'. Larunbata 21, 19:30 - 22:15.

'Copycat'. Igandea 22: 19:30 - 22:15; astelehena 23: 19:30.

'Lago Ness'. Igandea, 16:45.



'La carnaza' Bertrand Tavernier (Fra, 1994)

Paris. Hiru gazte: amu lanak egingo dituen neska eta honen bi lagun hotz-hotzean hilko dituzte bi mutilak: Arrazoia: lapurreta. Beren ametsa: EEBBetan arropadenda kate bat eratzea. Horretarako: 10 milioi libera behar dituzte. Kopuru hori lortzeko: edozertarako prest daude. Ezaugarri bereziak: batere ez. Jende arrunta da. Frantzia gizartea zeharo asaldatu zuen benetako gertaera hau 1984an izan zen eta Tavernierrek filme honetan gordinki kontatu zuen, errealitatea bera baino gogorragoa, beharbada.

Dokumental itxurako filme bikaina dugu, dekoratu ederrez hornitua non aktoreak ederki moldatzen diren (aipagarria Marie Gillain-en lana) moralkeria faltsuaren inongo kutsurik gabe.

MUSIKA

BEASAIN:

Irailak 21, Napar jotzen jaialdia, Ezkierdi pilotalekuan, 22:30etan.

Irailak 26, Julia Leon eta Kitarra jolearen 'romantzerroa eta sefardi musika' kontzertua, Usurbe Antzokian, 20:00etan. Sarrera 500 pezeta.

LAZKAO:

Irailak 27, Rock kontzertua, plazan, 20:00tan.

Irailak 28, Trikiteltz trikitixa taldea, plazan, 23:00etan.

ANTZERKIA

ORDIZIA:

Irailak 20, Beasaingo-antzerki tailerraren emanaldia, 'Uderdi gau bateko ametsa' lana, Herri Antzokian, 22:15etan. Sarrera 500 pezeta.

LAZKAO:

Irailak 26, Beasaingo-antzerki tailerrak 'Uderdi gau bateko ametsa' eskainiko du Maizpideko zinemaren, 21:00etan. Sarrera 500 pezeta.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Irailaren 22ra bitartean, Goyo Huesoren argazki erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoa.

Irailaren 27ra arte, Mamen Garciaren erakusketa, Aterpe Tabernan.

Irailaren 27tik urriaren 6ra arte, Francisco Javier Rojoren erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoa.

Irailaren 28tik urriaren 18ra arte, Francisco Javier Rojoren pintura erakusketa, Aterpe Tabernan.



MUJKA



BEASAIN ☎ 88 74 00

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35	Elosegi, 14	Sta. Maria, 19
☎ 88 77 58	☎ 88 72 79	☎ 16 00 44
BEASAIN	LAZKAO	ORDIZIA

GOIERRITARRA

**Gure inkesta orria
iritzi zaizuenoi, bete
eta lehenbailehen
bidaltzea eskertuko
genizueke.**

Bidali:

**124 Posta Kutxatila
ORDIZIA**

ORDIZIA:

Irailaren 20ra bitartean, Rikardo Ugarteren erakusketa, Barrenan.

IKUSENTZUTEKOAK

LAZKAO:

Irailak 25, 'Lera txakurra'. Udaletxeko Areto nagusian, 20:00etan.

LAZKAO:

Irailak 30, 'Asia', Udaletxeko Areto Nagusian, 20:00etan.

BESTELAKOAK



LAZKAO:

Irailak 28, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak, plazan, 17:00etan.

DANTZA

LAZKAO:

Irailak 29, Oin Arin eta Lizarrako Larratza Dantza Taldeak, plazan, 17:00etan.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Irailak 22, Kanpaldia.

Irailak 29, Lizarrusti-Putxerrira.

Idiazabalgo mendizaleak:

Irailak 22, Lapoblacion-Herrera/ Herrera-Lapoblacion.

Irailak 29, Beasain-Murumendi-Itsasondo.

Ordiziako mendizaleak:

Irailak 22, Otzaurte-San Adrian-Tanbobide-Brinkola.

Irailak 29, Ernio.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

☐ Peugeot 205 SR-a salgai, SS-1337-X matrikuladuna. Egoera onean eta interesatuok deitu 16 10 46 telefonora, eguerdian.

☐ Peugeot 205-a salgai SS-AJ matrikuladuna. Egoera onean. Interesatuok deitu 46 73 95 telefonora.

☐ Masaje edo estetizista kamila-mahaia saltzen da. Oso gutxi erabilitakoa. Deitu eguerdian edo gauean. 881734.

☐ Hiru zakurkume, Setter Perdiger arrazakoak, saltzen dira. Hiru hilabetekoak. 16 04 51.

☐ Suzuki RM 125 motorra salgai, 225.000 pezetan. 88 18 02 eguerdian deitu.

☐ Fotokonposizio lanak egiten ditugu. 72 02 95 (Kontxi). Zumarraga.



GOARDIAKO FARMAZIAK

20-21-22: Jauregi.

23: Laurnaga.

24: Cuesta.

25: Arriola.

26: Urbizu.

27: Atorrasagasti.

28-29-30: Azpilikueta.

Urriak 1: Jauregi.

2: Laurnaga.

3: Cuesta.

4: Arriola.

IBAI-ONDO



**ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 BEASAIN



☎ 88 55 00 ORDIZIA

IKASTEK AKADEMIA

KALITATEA eta PROFESIONALITASUNA

✓ **ESKOLA LAGUNTZA**

☐ Maila eta arlo guztiak

✓ **UNIBERTSITARIOAK**

☐ Kalkulua eta kontabilitatea

☐ Estatistika eta matematika

✓ **OPOSAKETAK**

☐ Osakidetza

☐ Postariak

☐ Justizi administrazioa

✓ **KURTZOAK**

☐ Eskola graduatua

☐ LH 1eko titulu ofiziala

☎ 16 01 20

Joan Iturralde, 5 BEASAIN

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabea

Larraitz bidea



GAINTZA

☎ 88 98 48



Kepa Korta

Ordizian, jatetxe batean, herri bertako kaletan ETak asasinatutako Guardia Zibil baten alargun eta alabak, erbestean hildako ETako kide baten alarguna zerbitzatzen dute. Hau dena, hildakoen mitifikazioarekin hausten saiatzeko 'Joxe Migel Barandiaran' izena jarri zitzaion plazatik 100 metro exkaxetara, nahiz eta gehienontzat, zoritxarrez, 'Yoyes Plaza' den. Hau ere Antonio Mateo asasinatu zuten lekutik 100 metro exkaxetara, baita duela gutxi Isidro Usabiaga asasinatua izan zenetik ere.

Ordizia, astelehena, arratsaldeko 8ak, Ortega Lara, Aldaya...-ren askatasunaren aldeko konzentrazioa. 300-400 pertsonako talde bat isil-isilik dago. Aurrean beste 80 pertsona, ETaren aldeko oihuak jaurtitzeaz gain, 'lazo urdineko hiltzaileak' deitzen die aurrean dituztenei. Baina, zeintzuk dira batzuk eta besteak?: Anaiak, lehengusuak, kuadrila bereko lagunak, ikusten ditugu bata bestearen aurrean.

Ordizia, jaien erdian Isidro Usabiaga asasinatua izan da. Eguerdiko 12etan egini-ko Osoko Bilkuran jaiak bertan behera uztea erabakitzen da. HB aurka egon arren. Hauetako zenbaitek jaiak ospatzea erabakitzen dute, bezperan Isidro Usabiaga asasinatu zuten lekutik metro gutxira.

'Paisaje' hau laborategi ederra izango litzateke soziologo eta psikologo onenentzat. Adiskidetasun, ahaidetasun, gorroto, inbidiaz... beteriko paisajea. Bertan, giza-

kiarenganako errespetua hainbaten buruetan lekua galtzen ari da. Beraren aurka 'denak balio' duen etsai baten esistentzia indartzen da. Baita, 'Etsai' hori eliminatzearekin ere gozatu egiten da. Baina, zein da nere etsaia? Zergatik hartzen dut etsaitzat? Ze arazo larri konpontzen dut 'etsai' horren bizitza apurtzearekin? bezalako galdera garrantzitsuak ez dira egiten.

Izen eta abizeneko norbaitek, Yoyes hiltzea erabaki zuenetik 10 urte pasa zirela gogoratuz etorri zaizkit hausnarketa hauek burura. Bere delitua: ETA Militarrari intsumiso izatea. Bere delitua: EZ esatearen bere bidezko askatasuna gauzatu nahi izatea. Bere delitua: 'bide horretatik ez goaz inora' esatea. Bere delitua: agian bere anaiak 9 urte geroago esan zuena pentsatzea: inongo ideiak, goragarriena izanda ere, ez du gizaki baten asasinatzea merezi.

Gaur, Yoyes asasinatu eta 10 urteetara, Gizarte Zibilaren hainbat urteko borroka suspertzen hasi denean, aro berri batetan sartu gintzekela iruditzen zaigunean, elkarriketarako itxaropen aro batetan, basakeria berri baten erdian aurkitu gara, hau ere gure herrian. Gaur egun oraindik gizaki bat inkomunikatuta dago, bere familiarren bisita izateko aukerarik gabe, inork bere eskubideak irakurri gabe. Ezin da, preso eta atxilotuen bidezko eskubideen defentsan, bere gutxieneko giza eskubideak ukatuak dituen pertsona baten tortura defendatu. Honegatik, Zuzenbidezko Estatu-
tik GALEkoen terrorismoa,

familiak presoak bisitatze-ko ehundaka kilometro egin beharra eta kartzela egoera izugarria jasatea bezalako torturak legitimatzea ankerkeria da. Bere interesak defendatzeko presoak erabiltzen dituztenak deslegitimatzeko argumentu onena Estatuaren ekintzen garbitasuna da.

Apunte hauek non gauden zehazten dute. Zenbait pertsona, bapatean, gure herri-
deen kontzientziak mugitu

*"Usabiagaren
asasinaketaren
aurkako
manifestazioan
herria ikus zitekeen,
orain dela 10 urte
egon ez ziren
pertsona asko"*

eta 'nahikoa da', lotsaz baina 'nahikoa da' esan zutenetik zer aldatu da? Mundu guztiak, ausardi handiago edo txikiago-ekin, biolentziari erantzun soziala eman nahi izango balio bezala, lehenengo izatera inor ausartu gabe. Besterik gabe 'aski da' esan zuten herritarren batasuna. Yoyesen aldeko manifestuan sinatzeko arazo handiak izan zituzten herritarrak, baina egun ondoren lasaitu zirenak.

Gaur egungo ikuspegitik begiratzen denean, orduan egindakoa ikaragarri epela iruditzen zaigu. Biolentzia babesten zuen munduaren aurka agertzeko beldur sozialak sortzen zituen arazoak handiak ziren. Talde Politikoe-ekin, ohorezko salbuespenak izan ezik, Yoyesen omenezko ekintzetan, zuhurtasunezko distantziak mantendu zituzten. Horregatik izan zen hain garrantzitsua Yoyesen asasinatzeak suposatzen zuen indarkeriaren aurkako borondatezko adierazpena. Giza sektore guztietan eztabaida sortzeko aukera funtsezkoa izan zen.

Handik aurrera prozesu pertsonala sortu zen, indar-


keria nolabait gaitzesten denean. Publikoki indarkeria gaitzesten duenak beldurra galdu eta Bakearen aldeko militante berria bihurtzen da. Prozesu pertsonal hau, itxur-
an txikiagoa, geroan sortu-
tako mobilizazio sozialen
handitasuna ulertzeko behar-
rezkoa da.

Urtebete beranduagoa sortutako mobilizazioa, Antonio Mateoren asasinatze (familia guztiz euskaldun bateko kide batekin ezkondua zegoena), enblematikoarekin izan zen. Talde politiko guz-
tien batasuna suposatu zuen
eta garai hartan ezberdintasu-
nak baztertuz, manifestazioa
konbokatuz zuten. Honek
hilabete batzuk geroago Aju-
ria Eneako paktua izango ze-
naren prologoa suposatu
zuen.

Gutxinaka, eta era batera-
tuan antolatutako manifesta-
zio handien itzalean, pakea-
ren aldeko mugimendu so-
zialen pixkanakako igoera
sortu zen. Prozesu honekin,
Ordizian oso esanguratsua,
beraien ideiak defendatzeko
biolentzia erabiltzen dutenen
aurrean, modu paketsuan, gi-
zarte zibilak kalea berresku-
ratu zuen.

Gizarte hau asko aldatu da
orduz gero. Milaka lagun
mobilizatu dira bakearen al-
de eta indarkeriaren aurka
azken 10 urteotan. Usabiaga-
ren asasinaketaren aurkako
manifestazioan herria ikus
zitekeen, orain dela 10 urte
egon ez ziren pertsona asko,
baina orain bakearen aldeko
militante bihurtu direnak.
Bere inguruan, bere familia-
rekin, ausartagoak izango di-
ra indarkeriari gaitzespena
azaltzeko eta oraindik ETA-
ren alde dauden lagunak hor-
tik ez doazela inora konben-
zitzen saiatuko dira. Bere
hurkoaren aurkako indarke-
ria babestea deserosotasun
sozial bihurtu dadila.

ERREZETA



Jexus Mari Telleria
Kale-Txiki jatetxea
Gaintza

MONDEJUAK

Osagaiak: porruak, tipula, ardi segoa, arrautzak eta gazta.

Segoa zartagian jarri. Urtzen denean porruak bota txikituta, baita tipula ere. Ondoren beste kazuela batera bota eta porrua eta eta tipula bota. Hozten utzi eta hoztean arrautza batituak bota. Guztiak esteetan sartu. Esteak gehiegi bete gabe utzi. Probatu nahi duenak pasa bedi Gaintzako Kale-Txikitik.

AHOLKUA

Beroketa kirolean

Beroketaren helburua gorputza prestatzea da burutu behar duen iharduerarako, lesioen arriskua gutxituz aldi berean. Eta beroketak ezaugarri konkretu batzuk izango ditu orokorrean:

- Progresiboa izan behar da beti, pixkanaka-pixkanaka bihotza atsedean egotarik entrenamendu aerobiko egoerara aldatuz.
- Iharduera arin honek (beroketak) artikulazioak lubrikatu behar ditu, artikulazio barneko likido sinobiala aldatuz hezurren desgastea galazteko.
- Beroketak giharrak, lotagailuak eta zurdak aktibatzen ditu.

tu behar ditu malgutasuna emanez.

- Gorputzean hotz-beroa 1º eta 1,5º bitartean igo behar da.
- Bere iraupena 15 minutu ingurukoa izan behar da gutxienez, eta burutu behar dugun iharduerara bideratua.
- Beroketa oro 3 zatitan banatuko dugu:
 - * Mugimendu orokorrak.
 - * Mugimendu espezifikoak.
 - * Luzaketak edo estimamenduak.

Kirola egiten duen orok daki beroketa egin behar dela ekintza hasi aurretik. Ohizkoa den zerbait da, naturala; jeiki aurretik luzatzen garenean adibidez. Eta ez giza-kiak bakarrik, animalia guztiek dakite eta egiten dute: txakurrek adibidez, gaua lotuta pasa ondoren paseatzera ateratzean beren giharrak luzatzen dituzte lehenik.



Beroketa baten adibidea:

1- 5 minutu korrika oso erritmo lasaian.

2- Burutu behar dugun kiroleko ariketa espezifikoak: paseak, jaurtiketak, erritmo aldaketak adibidez futboleak.

3- Luzaketak: landu behar diren gihar talde nagusiak.

BEASAINGO

96-97 IKASTAROA



EUSKALTEGIA

- Maila guztiak, euskalduntze, alfabetatze eta EGA.
- 2 - 3 eta 5 orduko erritmoak.
- Beste zenbait erritmo ere aztergai.
- Bekatze sistema eta dirulaguntzak. Galde ezazu.
- 16 urtez gorakoentzat.

Matrikulaldia zabalik.

San Martin Pl, Kultur Etxea ☎ 889094 BEASAIN

MUJIKA

Jatetxea

- ✓ Menuak kartan
- ✓ Ezkontza eta janaldietan berezituak

☎ 80 15 07 - 80 16 99
Liernia Auzoa MUTILOA



OINETAKOAK
OSAGARRIAK

J. M. Barandiaran Plaza, 3
☎ 88 61 77 ORDIZIA



YOYES



1986-1996

Yoyes 1986-1996

Maria Dolores Gonzalez Katarain 'Yoyes' ETak hil zuela 10 urte diren honetan, 'Yoyes, 1986-1996' liburua kaleratu berria da. Bere eguneroko edo diarioko pasarteak, duela 10 urteko omenaldian esandakoak, eta azken 10 urte hauei buruzko gogoetak egiten dituzten kolaborazioak biltzen dira bertan. Besteak beste, Kepa Aulestia, Lurdes Auzmendi, Martin Auzmendi, Mikel Azurmendi, Bernardo Belzuengi, Jose Maria Calleja, Denon Artean-Paz y Reconciliacion, Juanjo Dorron-soro, Ana Ereño, Anne Etcheverry, Ramon Etchezarreta, Jonan Fernandez, Gesto por la Paz, Pedro Gaztañaga, Isabel eta Gloria Gonzalez Katarain, Felipe Juaristi, Jon Juaristi, Kepa Korta, Bixente Serrano Izko, Yoyesen aldeko Herri Batzordea eta Ana Zurutuzak kolaboratu dute. Yoyesen hainbat argazki ere azaltzen dira.

Gose greba Erroman

25 goierritar aste beteko gose greba egiten ari dira Erroman, euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzaten eskatzeko. Europako 7 hiri-burutan preso bakoitzeko pertsona bat ari da gose greban, 500dik gora.

Latasa

Jose Migel Latasa presoak ordiziarrek eskutitz bat bidali zion abuztuan Jose Antonio Ardanza lehendakariari, hirugarren gradua lortzeko Ajuria Eneko Mahaia-ren laguntza eskatuz. Latasak bergizarteratzeko neurriak onartzeko asmoa azaldu arren, baldintza gabeko zigorra betetzen ari da. Ordiziarren ustez, hirugarren gradua lortu ondoren berriro kartzelaratu izanak "*sinesgarritasuna kendu dio Mahaia bultzatutako bergizarteratze bideari*".

Telefonikako autoa

Ordizian irailaren 6an, Telefonika konpainiako autoa erre zuten zenbait ezezagunek. Eraso hau euskal preso-en aldekoa izan zela erreibindikatu zuten.



Antzizar Tennis taldea

Irailaren 7an jokatu zen Beasainen, I. Antzizar Tennis torneo-a. Goierri osoko 12 bikotek hartu zuten parte. Irabazleak: gizonetako bikoteetan Zumarragako Iker Sorazule eta Javier Godoy; emakumezko bikoteetan, Nerea Arnaiz eta Pilar Legarra beasaindarrak; 13-15 urte bitartekoetan Beatriz Barriola eta Olatz Barandiaran beasaindarrak; eta mixtoetan Maider Intxausti eta Xabier Jauregi.

Markel Olano

Beasaindarrak parte hartuko du ostiralero-ostiralero Euskadi Irratian goizeko 9ak inguruan izaten zen politikarien tertulian, EAJren izenean. Jose Luis Elorza Beasaingo PSE-EEko zinegotzia ere tertuliakide izango du.

Ehiz postuak

Segurako udaletxean izan zen irailaren 8an Aizkorriko Partzuergoko uso-postuen enkantea edo subasta. Apota-10 izan da diru gehien ordaindu dena; Pasaia Inazio Lapazak 855.100 pezeta ordaindu ditu. Agiñaran-4agatik 734.000 pezeta ordaindu dira; Apota-12agatik 641.111 pezeta; Larribil-17agatik 621.000; Larribil-19agatik 602.156 pezeta; Apota-8agatik 550.000; Larribil-7agatik 525.000; Larribil-15agatik 500.000 pezeta; Agiñaran-6agatik 493.333; Apota-14agatik 490.000; Aratz-7agatik 490.000 pezeta. Posturik merkeena Ultzama-10 izan da, 116.000 pezetan.

Akordeoi txapelketa

Xabier Tapia asteasuarrak irabazi du Ordiziako I. Akordeoi txapelketa. Finalistak 5 izan ziren: Irungo Artizar Susperregi, Xabier Tapia asteasuarra, Jokin Goenaga lasartearra, Bera-ko Mikel Urtxegi eta Eibar-ko Julio Jose Zalabardo.



Sasieta

Ingurugiroa zaborra gutxitzearekin, berrerabiltzearekin eta berziklaketa-rekin zaintzen da. Sasieta orain artean berziklaketa-ren bidea jarraitu du. Orain, ordea, berrerabiltzearekin bidea jorratzen hasiko da. Valentziako Unibertsitatean laguntza humanitaria eta berrerabiltze lotzen dituen esperientzia aurrera eramaten ari dira, Cubarako material optikoa eta (betaurrekoak...) eta informatikoa (ordenagailuak, inpresorak...) bilduz. Sasieta esperientzia hori Goierri aldera ekarri nahi du. Era honetan leku hauetan bilduko dira guk behar ez eta cubatarrei ederki etorriko zaien materiala: Beasainen Imaz Optika, Eusko Optika, Nagusi Optikan eta Chip's eta Goisystem informatika dendetan; Ordizian Larrañaga eta Imaz optiketan; eta Noan informatika dendan; eta Lazkaon Luzuriaga optikan.



Goieniz

Urriaren 3an jarriko da martxan Goieniz Zine-klubaren ziklo berri bat. Iazko zikloek "harrera bikaina" izan zutela diote Goienizekoek eta aurtengoak ere harrera bera izan dezaten gogor lan egin dute. Aurtengo denboraldirako gainera, zenbait berrikuntzarekin datoz.

Zikloa 7 emanaldiz osatua egongo da, 8 filme eta 5 laburmetraia ikus ahal izango dira. Ziklo osorako abonoen salneurria mantendu egingo da (2.000 pezeta), Zine-klubaren laguntzaileen partaidetza indartu nahian. Emanaldi bakoitzeko sarreraren salneurriak ere mantendu egingo dira: 450 pezeta. Dagoeneko salgai dituzue ohiko lekuetan: Beasainen Basakana eta Blues Brothers tabernetan eta Usurbe Antzokian; eta Ordizian Leizea tabernan eta Ordizia Bideo Klubean.

Ziklo guztietan zine klasikoarentzat toki bat gorde nahi dute antolatzaileek, 'Ahaztezinak' deritzon emanaldiaren bidez. Lehen saio hau 50. hamarkadako zine fantastikoari eskainiko diote, eta horren lekuko abenduaren 5erako aukeratutako bi filme esanguratsuak: 'La invasion de los ladrones de cuerpos' eta 'El increíble hombre menguante'.

Hori bai, emanaldiak ordu eta toki berean izango dira: Usurbe Antzokian, gaueko 9etan. Dena den, aurtengo lehenengo zikloko pelikulak eta egunak hauek dituzue:

Urriak 3: La carnaza (Fra. 1994).

Urriak 17: Yeelen (Mali 1987).

Urriak 31: Underground (Fra-Ale-Hung. 1995).

Azaroak 14: Leon, the pig Farmer (Brit. H. 1993).

Azaroak 28: La Tarea (Mex. 1990).

Abenduak 5: Ahaztezinak (Zine fantastikoa 50. hamarkadan). La invasion de los ladrones de cuerpos (EEBB, 56) eta El increíble hombre menguante (EEBB, 57).

Abenduak 19: Sospechosos habituales (EEBB, 1995).



AEK zozketa

Maite Irastorza ordiziarrek erosi zuen Ordiziako azoka berezian AEKren zozketan zorteko zenbakidun txartela: 001. Goierri-

ko baserrietako produktuekin osatutako lote ederra eraman zuen.



Ordiziako azokako emaitzak

Gazta:

75 gazta aurkeztu ziren 23. gazta lehiaketara. Horietatik 17 goierritarrenak ziren. Gazta gehienak ketutakoak ziren, 53; ketu gabekoak 22. Asturiasko gazta bat aurkeztu zen lehiaketara, eta 5. egin zuen. 14 gazta pasatzen dira finalera, goierritarrak 3 izan ziren: Domingo Goiburu irabazlea bera, Felix Goiburu segurarra eta iazko irabazlea, eta Gabiriako Amelia Jauregi. Gazta erdiaren enkantean Donostiako Urbietako kaleko supermerkatu bateko jabeak erosi zuen, 555.000 pezetan.

Barazkiak:

Martuteneko Jose M^a Zabalegi izan zen irabazle; Anoetako Jesus Artola bigarren; eta Lazkaoko Altuna baserriko M. Jesus Mujika hirugarren.

Fruituak:

Goierritarrak izan ziren nagusi. Idiazabalgo Kalbario baserriko Ramon Aseginolazari eman zioten lehen saria; bigarrena Zaldibiko Otsaitza baserriko Jesus Irazustabarrenari; eta hirugarren saria Antzuola aldera joan zen.

Behiak:

Ganaduetan Limousin arrazan, Urretxuko Jose Migel Elgarrestarenak izan ziren ederrenak. Pirenaika arrazakoan, Idiazabalgo Aritz-Eder baserriko Pedro Katarainenak. Eta friso arrazan, Lazkaoko Iztueta baserrikoak.

Eusko oiloak:

16 partehartzaile eta 48 lote aurkeztu ziren XV. lehiaketa honetara. Francisco Quiros ordiziarren lotea izan zen onena. Marradun onena ere Quiros berarena izan zen; eta lepagorri onena Idiazabalgo Asier Alberdirena.

Sukaldari txapelketa

Ordiziako Larrun-Arri elkartearentzat izan zen Elkarteen Arteko Bertako Produktuen sukaldaritzaren txapelketa. Julian Ormaetxea eta Migel Jauregik osatu zuten sukaldari taldea.

Odolki txapelketa

II. Goierriko Odolki txapelketan, Ordiziako Oianguen harategiko Jose Antonio Mujika izan zen irabazle.

BEASAINGO HBren ETXEBIZITZA DUINAREN ALDEKO KANPAINA:

"Beasainen bizitzea: bizitza kalitate eskasa eta jende gutxi ahal duen salneurri izugarriak"

Beasainen lurzorua kopuru handiena etxebizitzaz beterik badago ere, etxebizitzaren arazoa da herriaren arazo larrienetako bat, HBk salatu duenez. Uda aurretik inkesta bat egin zuen ezker abertzaleak gazte eta etxebizitzaren arazoa larriena den lekuetan. Etxebizitza gai hartuta mahainguru bat ere egin zuten. Uda ondorengorako, kanpainaren 2. zatia martxan jarri du HBk. Beasaindarrei informazio zehatzagoa emateko, asteazkenetan, iluntzeko 8etatik 10etara, HBko zinegotziak izango dira Udaletxean bertan. Kanpainaren xehetasunak eman dizkigute HBko zinegotziek. Ezkiaga auzoan egingo diren babes ofizialeko zenbait etxe Udalak erosi eta alokairuan jartzea eta hutsik dauden etxebizitzak merkatuan sartzea proposatzen.

"Jadanik urte asko dira Beasainen ez dela etxebizitza babesturik eraikitzen, etxebizitzetako % 18 hutsik dago, eta merkatuan dauden etxebizitzak salneurriak neurritz kanpokoak dira. Urtean 2 miloi irabazten ez dutenak ezin dira ailegatu besteak uzten dituzten etxebizitzetara, oso garestiak direlako hauek ere", dio Txani Lasa HBko zinegotziak Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera, populazioaren % 84ak ezin du 12 milioi baino gehiago balio duen etxebizitzarik erosi, "orduan ezin da inolaz ere onartu diru kopuru hori gainditzeko duten etxebizitzaren sustapena. Eta gaur egun, Beasainen ez da eraikitzen pisu bakar bat ere prezio horren azpitik", salatu du Arrate Izagirrek.

Beasainen inkesta bat egin zen, 1993ko. uztaila eta iraila artean, etxebizitzaren beharrei buruz, eta

"garbi geratu zen beasaindarren % 20 alokairuan bizitzeko prest dagoela eta beste % 80 etxebizitza erosteko. Hemen aurreneko arazoa ikusten da, hau da, ez dagoela alokairuzko etxebizitza eskaintzarik. Gainera, alokairuan sartzeko prest zeudenen artean, ia erdiak ezin du 25.000 pzt. hilean ordaindu eta etxebizitza behar dutenen artean % 61k ez du Lanbide Arteko Gutxieneko soldata gainditzeko. Beste datu interesgarri batzu: % 88k ezin du 11 miloi baino gehiago ordaindu, eta hauen artean % 23k ezin du ezta 8 miloi ordaindu ere".

Datu hauen arabera, ara-



Babes ofizialeko etxebizitza guztiak, urbanistikoki hain zigortua dagoen auzoan egitea salatzen du Herri Batasunak.

zo "larri" honi konponbidea emateko, "babes publikoko etxebizitzak behar dira, hau da, dirulaguntzak bai erosketan eta baita ere alokatzeko orduan", Andoni Antxiak dioenez.

Beasainen, Ezkiaga auzoan, etxebizitza publikoak eraikitzekotan dira "baina, zenbatekoa izango da beraien erosketa prezioa? Beharrean dauden beasaindarrak esaten dutena, hau da,

dugu gure borroka, 'duintasuneko etxebizitza eskubi-dea' guztiok omen dugun hori benetazkoa bihur dadin".

Birgaitze egitasmoak

Etxebizitzarena, ordea, ez da arazo bakarra HBrentzat. "Birgaitze edo errehabilitazio egitasmoak eta hutsik dauden etxebizitzaren alokairu politikak aurrera eramaten ez diren heinean, Beasainek duen urbanizatzeko lurzoru guztia agortuko da, inork erosi ezin dituen etxebizitza garestien bitartez". HBren datuen arabera, hiriguneko 6 etxebizitzetatik 1 hutsik dago. Erdiguneko egoera handiago da: 3 edo 4 etxebizitzetatik 1 hutsik dago. "Beasaingo erdigunea hutsik dago, hirigintza garapena esku pribatuetan geratzen den bitartean, eraikitzaileen interesei eta ez herritarren beharrei erantzuna ematen dien akordioak sinatuz. Beasainek urbanizatzeko lurzoru

"% 84ak 12 milioi baino gehiagoko etxebizitzarik ezin badu erosi, ezin da inolaz onartu diru kopuru hori gainditzeko duten etxebizitzaren sustapenik"

6 eta 11 milioien tartekoa? Eusko Jaurlaritzak aitortzen duen arrazoizko 12 milioi mugaren prezioan?", galdetzen du HBk. "Hau beteko ez ote den beldur gara. Eta hortxe zabalduko

gutxi du, eta dena dago eraikitzaileen eskuetan, PNV, PSOE eta EA bezalako alderdiei esker, hauek ez baitute inongo asmorik geratzen zaigun lur apurra babesteko", salatu du Antxiak.

Hori ekiditeko, HBk "emendakien aurkeztu zizkien aurrekontuei, irtenbideak azaldu Eskisabaleko eremuari, hutsik dauden etxebizitzak mailan inbertsioak eta plangintzak proposatu zituen, baina hau dena atzera bota zuen bloke horrek -- PNV, PSOE, EA--". Hala ere, gu ez gara aspertuko arrazoizkoa den zerbait exijitzen. Etxebizitzak hutsik dauden bitartean ezin da eraiki, daukagun lurzoru eskasa babestu egin behar dugu, aisialdirako guneak eta dotazioak bermatzeko".

Erdigunean eraikitzeotan, erdi eroriak dauden etxebizitzak okupatzen duten -lurzoroekin hasteko dio Lasak, "eta ez Eskisabel bezalako guneak hipotekatzen. Jakinda gainera inguruetan bizi direnen bizitza kalitatea hobetzeko aukera paregabea eta ia bakarra desagertzen dela".

Bete gabe dauden etxebizitzak arazoak gutxien eragiten duen eremua Ez-



kiaga auzoa omen da, "eraikuntza mailan gehien zigortua izan dena beste aldetik. Zergatik ez da bukatzen etxebizitza hutsen 'bahiketa legalarekin', hiriko biztanleria mugitzen duena Ezkiaga bezalako auzoak asebate gabe? Zergatik eraman Ezkiaga auzora eraiki behar diren babes ofizialeko 115 etxebizitza guziak, auzo hau nahiko asetuta dagoenean eta hirigintza mailan nahiko zigortua dagoenean? Eta zergatik eraiki behar dira ekimen pribatuko etxebizitzak Eskisabaleko eremuan, hain justu bete gabeko etxebizitzak arazoa larriena den inguruan? Oso garbi ikusten dira erantzunak: interes handi eta sendoak daude tartean", adierazi du Izagirrek.

Proposamenak

HBk apostu sendoa egiten du Ezkiaga auzorako aurrikusita dagoen eraikuntza egitasmoa bere osotasunean etxebizitza "sozialak" eraikitzeke izan dadin, eta horrela, urtean 2 miloi pezeta gordin baina gehiago irabazten ez dutenek, 8 miloietara iristen ez diren pisuak erosi ahal izango dituzte, eta baita ere, etxebizitza horiek erosteko, mailegu berezien -% 4,5 intereserarekin- laguntza izateko ahalmena izan ere. HBren esanetan, Beasainen alokairuzko etxebizitzak behar dira, eta zera proposatu du: Udalak Ezkiaga auzoan aurrikusita dauden 115 etxebizitza horietatik % 20 eta %35 tartean erosi, 25.000 pezeta baina gutxiagotan alokatuz ondoren, gutxietsituentzat etxebizitza lortzen lagunduz.

Operazio hau ia dohainik ateratzen zaio Udalari, "hobezi-nezko baldintzak eskaintzen dituelako Eusko Jaurlaritzak. Horrela, mailegu berezi batzuen bitartez eta etxebizitza bakoitzeko 8.000 pzt./hilero ordainduz 20 urtez, Beasaingo herria egingo zen pisu horien jabe, beti ere alokairurako erabiltzen badira 20 urte horietan. Etxebizitza horiek Udalak 20 edo 25 mila pezeta bitartean alokatzen baditu, oso errez ordainduko ziren mailegu bereziak eta gainera dirua soberan izango zen mantenimendurako edo beste etxebizitza plangintza batzuk bultzatzeko", argitu du Lasak.

Etxebizitza hutsak alokairuan

Era berean, etxebizitza hutsak berriro ere merkatuarazteko, alokairuzko politika sustatzeko, zera proposatzen du HBk:

- Hiri Jabegotza Ganbararen bidez etxebizitza hutsik duten jabeengana iritsi eta proposatu pisua konpondu eta Udalari alokatzea. Bestaldekik, hutsik mantendu nahi dutenei, zerga gehiago ipiniko litzaieke.

- Plangintza honetan sartzeko prest daudenekin etxebizitzak errolda egin, prezioen arabera, berritzeko behar diren lanen arabera, kokapenaren arabera...

- Udalak arduratuko litzateke alokairuzko etxebizitza hauen adjudikazioetaz, alokairuak gestionatzeko udal bulego baten bidez, arrazoizko neurri-baremo eta prezioak ezarriaz. Horrela, jabeak hilero jasoko lukeen ordainsaria Udaletik eta alokairuaren ardura azken honen esku geratuko litzateke. "Jabeak ez du izan behar inongo beldurrik, kobraketa eta etxebizitzaren egoera hitzarmena amaitu ondoren Udalak berak garantizatzen dituelako".

- Eragiketa hauen iraupena 5 urtekoa izango litzateke, alokairu legediak markatzen duenaren arabera, eta berrituak izango lirateke maizterren baldintza ekonomikoak mantenduko balira.



Santa Maria, 8 ☎ 88 12 11

ORDIZIA

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 8893 90 BEASAIN

Nekazaritza biologikoaren azoka Zerainen



ta aldetik ere ondo joan zen", argitu digu Xabi Akizu Biolurreko (Nekazaritza Biologiko elkarte) kideak. Positiboa izan zen eguna, horren lekuko da, aurten saltzaile gehiago egotea, 24.

Ongarri kimikorik gabe hazitako produktuak biltzen dituen azoka izango da hilaren 22an, Zerainen. Egun osokoa izango da: 11:00etatik 14:30etara eta 16:30etatik 19:00etara.

Iaz egin zen era honetako lehenengo azoka, Zeraien bertan. Arratsalde partean eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, harrera ona izan zuen azokak. "Zerain bezalako herri txiki batean izatean, jendea predisposizio batekin joaten da. Jendeak galdetu egiten zuen hau eta hura, interesa agertzen du. Informazioa ematearekin lortzen da jendea jabetzea zer jaten duen eta zergatik gauza batzuk diren era batekoak edo bestekoak. Salmen-

24 horietatik dena den, erdiak bakarrik izango dira nekazaritza erabat biologikoa egiten dutenak. Besteak, bidean doazenak izango dira. Zatiketa hau, ordea, oraindik arautzeaz dago, nahiz eta hori arautuko duen dekretua laster kalean izango den. "Produktu biologikoak ez dauka abal bat oraindik. Dekretu bat aterako da laster, biologikoa dena eta ez dena arautuko duena. Produktu biologikoa bihurtzeko baldintza batzuk izango dira. Zein ongarri bota behar den edo ez; zein manipulazio egin behar zaion edo egin daitekeen... Labelaren antzeko kontrola izango du, baina kontrol zorrotzagoarekin. Biologikoa denak etiketatuko

bat eramango du, orain arteko labelak eramaten duen bezala", esan digu Akizuk. Dekretu horrek abantailak besterik ez omen dizkio ekarriko nekazaritza biologikoari. Azken batean, kontsumitzaileak ziurtasunez jakingo baitu produktua ongarri kimikoz eta era naturalean hazitakoa den.

Tradizionaletik oso gertu

Nekazaritza tradizionala eta biologikoa oso gertu daude. "Leku berean daude, baina ez nahastuta. Ez dira berdinak tradizionalean zenbait elementu kimiko sartu baitaitezke. Baina teknika jakin baten bidez lortzen da biologikoranzko salto hori. Gero dekretu horrek esango du gero biologikoa den edo ez", dio Akizuk. Euskal Herrian gainera tradizionaletik biologikorako salto hori erraz eman daitekeela uste du Akizuk. "Arazoa da, kontsumitzaileak hori baloratuko ote duen. Nekazariak ez dute nekazaritza biologikoa lantzen, kostu bat duelako eta kostea jaisteko ezin da kalitatea jaitsi, hori osasuna eta ingurugiroarekin jotzea delako".

Kontsumitzaileak gero eta gehiago dira. Behi eroak, traturik zeuden melokotoiak... eta horrelako "disparateekin", jendeak piskanaka biologikoa aukeratzen omen du. "Oso geldoa da igoera. Eta zoritxarrez, igoera hau informazioagatik izan beharrean, sustoengatik izaten da. Ez da metodorik onena".

Zeraingo produktuak

Zeraingo produktuak ere izango dira salgai. "Zeraingo produktuak baserrikoak badira ere, ezin da esan biologikoak direnik. Baina saiatzen gara azoka horretara era tradizionalaren bidez landutako produktuak eramaten, ongarri kimiko askorik erabiltzen ez duena". Zeraingo produktuekin batera Euskal Herriko Nekazaritza Ekologikoaren elkarteak, 'Otarra' kontsumitzaileen elkarteak, EHNE (Euskal Herriko Nekazaritza Elkarte) eta Biolur bera izango dira igandeko azokan.

Egunean zehar, 2 zozketa egingo dira, produktoreek emandako produktuekin osatutako 2 lote zozketatuz.

Loinaz Agirre

GIPUZKOAKO NEKAZARITZA BIOLOGIKOAREN II. AZOKA

Irailak 22 Zeraingo Herriko Plazan
(11-14:30 eta 16:30-19:00)



Informazio eta harrera bulegoa:

☎ 80 15 05

- Baserritar biologikoen produktuen erakusketa eta salmenta. Barazkiak, fruituak, gazta, ogia, etab.
- Zeraingo baserriko produktuak.
- Bisitako aukerak: Herri Museoa, Larraondo zerrategia, Kartzela, BTT zirkuitua, herriko produktuen denda, etab.
- Bisita berriak: diaporama, herriaren historiaren ikustentzutekoa. Goierriko artisautzaren erakusketa eta salmenta.

DOMINGO GOIBURU ORDIZIAKO GAZTA TXAPELKETAREN IRABAZLEA:

"Gaur egun Idiazabal 6 artzain gaude, lehen etxe bakoitzean bat egongo zen"

Momentuko urduritasunak pasatuta, (hainbeste jende, hainbeste komunikabide eta erdira atera beharra...) gustora dago Domingo. 70 bat buru ditu, Etxegarartetik gora. Gurutze-berrin, goizero egiten die buelta bat. Txiki txikitatik ibili izan da artzain, baita fabriketan lanean zebilela ere. Bere aurrekoak ere artzain ibiliak dira, iazko Ordiziako gazta txapelketako irabazlea, Felix Goiburu segurarra, familiakoa du. 55 urte ditu. Orain erretiratuta, asti gehixeago du "denborapasa" honetarako.

G.- Espero al zenuen irabaztea?

E.- Espero, espero... aurrean ibiltzea bai, baina irabaztea ez. Ez da lehenengo aldia aurkeztu naizela, finalera askotan sartu naiz, baina ez dut zorte onik izan. Iaz Elgoibar-ko urte zaharretako lehiaketan 3. egin nuen. Baina txapelketa inportanteena, inongo konparaziorik gabe gainera, Ordiziakoa da. Euskal Herri osoko txapelketa izaten da. Txirrindularitzan Tourra bezala.

G.- Goiburu entzun zenuen, zer?

E.- Lehenengo zenbakia esan zuten, 43. Kontxo, pentsatu nuen. Nerbioso jartzen da momentuan, jende aurrera atera behar, hainbeste komunikabide...

G.- Aurkeztutako gazta mima bereziarekin egindakoa al zen?

E.- Politentxona gordetzen da. Gazta guztiak nahiz eta berdin egon, ez dira ateratzen.

Maiatzean egin-dako gaztak hobeak izaten dira, belarra ere hobe egoten da eta.

G.- Aurtengo gazten kalitatea ez omen da hain ona izan.

E.- Batzuek horrela esaten dute eta beste batzuk, berriz, ona izan dela. Eguraldiak zerikusi handia dauka. Eguraldi lehorrarekin, hotzarekin, nik uste gazta hobe ateratzen dela. Txarrena trumoi eguraldia da, bero zakarrak... harrotu egiten da, zulo gehiago izaten du, nahiz eta berdin egin.

G.- Non bazkatzen dute zure ardiek?

E.- Otzaurtetik gora, Gaztelu-berrin. Altu dago hura. Diferentzia dago bai, ardiak non ibiltzen diren. Leku finean ibiliz gero, finagoa izango da gazta. Partzonerian leku onak eta txarrak daude. Ni ibiltzen naizen punta horretan leku finak daude. Udaberrian jan asko egoten denez, normalean leku garbian ibiltzen dira.



Domingo Goiburu, erdian, Ordiziako Gazta Txapelketaren saria jasotzen

Menditik esnea jeitsi eta hemen baserrian egiten ditut gaztak. Sekula ez dut egunean zenbat gazta egiten ditudanaren kontua eraman. Ume egin berritan esne gehiago ematen dute, eta ume zahartzen denean, esne gutxitu egiten zaie. Horren arabera.

G.- Gazta suabea edo fuertea?

E.- Fuertera jotzen duena gustatzen zait. Suabeagoa ateratzen da gazta, likidoarekin bakarrik eginda. Eta gatzagiarekin bakarrik eginez gero, fuertetxo bezala. Nik nahasian egiten dut, fuerte aldera.

Albarda egilea

Gazta egiten punta-puntakoa dela erakutsi digu Domingo Goiburuk. Baina badu beste "hobby" bat ere. Basta edo albarda egilea ere bada idiazabalarra. Zamabereei zama garraiatzeko ezartzen zaien tresna da albarda. Zer den jakin eta ikusi nahi duenak, Zeraingo Mandioan du bat.

Aita zenarengandik ikasia du ofizioa. "Lehen ikaragarri erabiltzen zen, baina gaur egun traktoreak eta kotxeak erabiltzen dira. Gutxi egiten da oso". Artisau lan honegatik ere, iazko urte bukaeran saritua izan zen Domingo. Sasoi onean dugu idiazabalarra. Zorionak guztiagatik!

G.- Zer suposatzen du zure gazta erdi bategatik 555.000 pezeta ordaintzeak?

E.- Hori ondo dago, Zaharren Egoitzarako joaten da dirua eta.

G.- Izena eta ohorea lortu duzu. Hemen-dik aurrera zer?

E.- Betiko martxan segitu behar. Gehiago salduko dudala pentsatzen dut, baina gazta ona saltzeko inoiz ez da arazorik izaten. Egitea da arazoa eta zailena.

G.- Idiazabalgo baktek irabazi du.

E.- Gaztak Idiazabal izena daramanez, herriarentzat hori ona da. Lehen ere zerbaitegatik dauka izen hori. Garaian batean ona egiten zenaren seinale da. Dozenerdi bat artzain gelditzen gara gaur egun Idiazabal. Lehen baserri bakoitzean artzain bana egongo zen. Artzainak bukatzen ari dira, Idiazabal gehienak edadekoak dira.

G.- Idiazabal Jatorrizko Izenak abantailarik ekarri al dio gaztari?

E.- Niretzako bentaja egin dio. Izen bat duenez, salmentak hobeak izaten dira. Kontrol bat pasatu behar da baina inportanteena garbitasuna da. Esnea hoztea ere oso garrantzitsua da.


G.- Etorkizunik bai gaztagintzak eta artzantzak?

E.- Artzantzari gutxi, gaztak bai. Artzantza bizimodu go-gorra da, mendian egon behar da, eta ez 8 egunean bakarrik.

Loinaz Agirre

ORDIZIA

Trebijano berria inauguratua azkenik



Horrenbeste tirabiraren ondoren Trebijano rugby-zelaia estreinatzeko aukera izan dute azkenik. Eskolarteko lehiaketa batzuk aurretik jokatuak izan baziren ere, lehen mailako taldeak abuztu bukaeran jokatu zuen bere lehen partidua. Oraindik aurrendenboraldian daudenez, prestaketa fisikoan oinarrituta dabil-tza. Dena den kalitate tekniko-koa ere badagoela ikusi ahal izan dute Trebijanora ingurututako ikusleek.

Berritze lanak orain urtebete inguru amaitu baziren ere, beste hainbat denbora

egon da belarra zapaldu ga-be, lurrari ondo atxekitzeko asmoz. Orain, behin zapaldu ondoren, zelaia duen egoera onaz mintzo dira rugbyzale guztiak. Hori bai, azken balorazioa ezingo da atera eguraldi txarrak etortzen diren arte, ez baitakite zelaia lokazterakoan belarrak nola erantzun duen.

Baina denak hain polita ematen duen arren ezin ahaztu estatu mailako zelarik hoberenetakoa kontsideratua izan den Trebijano honen bizitza oso laburra izan dezakeela. Dakizuen bezala feri gune berriaren plana

hor baitago. Honen arabera, orain Trebijano rugby-zelaia dagoen tokian Eroski berria joango litzateke. Baina momentuz hau alde batera utzita ea aurten ere maila desberdinetako Ordiziako rugby taldeek urtero bezalako emaitza onak ekartzen dizkiguten.

Yoga klaseak martxan

Kurtso berriaren haserarekin batera aurten ere Yoga ikastaroak izango dira Barrrena Kultur Etxean. Iazko balantzea positiboa izan zenez Yoga Klasikoko Institutuko irakasleek jendea animatu dadinaren deia luzatzen dute, gaurko gizarteak sortzen duen estresa nolabait alde batera uzteko baliagarria baita yoga.

Ikasturtea urriaren lehen hasiko da, esan bezala Barrrenan eta ordutegia honako hau da: astearte eta ostegunetan 9:30etatik 10:30etara, baita astearte eta ostegunetan 20:15etatik 21:15etara

edo larunbatetan 10:00etatik 11:30etara. Aipatu larunbatetan umeentzat klaseak emateko aukera ere badagoela. Informazio gehiago edo izena ematea nahi izanez gero, 889770 edo 801427 telefonoetara deitu.

Futbito txapelketa

Anexoko txapelketa amaitu, uda pasatu eta berriro martxan jarriko da areto-futboleko txapelketa Majori Kiroldegian. Lehen bilerak eginak daude eta nahiko talde apuntatuko direlakoan daude antolatzaileak. Iaz parte hartu zuten taldeen maila zertxobait jeitsi bazen ere, aurten espero da garai bateko maila eta batez ere lehiakortasuna berreskuratzea. Partiduak urtero bezala larunbat arratsalde eta igande goizetan jokatuko dira, beti ere talde federatuek dituzten partiduen ordutegiak errespetatuz.

Aitor Calvillo

GAINTZA

Asto karrera Sanmielelako nobedade



San Miel jaiak gainean ditugu. Parrandarako prestatzen joan beharko, indartsu dator eta San Migel. Aurtengo nobedade, asto lasterketa da. Igandean izango da Zal-

dibiko Iztuetan Dantza Taldearen saioaren ondoren. Baina zein asto, bi ala lau hankakoak? Erantzuna San Miel egunez.

Irailak 27, ostirala:

12:00etan: Suziriek festa hasera.

14:30etan: Gazte bazkaria. Ondoren toka txapelketa herritarrentzat.

22:30etan: Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.

Irailak 28, larunbata:

15:30etan: Plater hausketa.

19:00etan: Haur jolasak.

19:00etan: Mondeju eta ardoa leporaino egin arte.

23:00etan: VI. Dantza txapelketa. **Ondoren:** Zabale Anaiak eta Lourdes Alkorta.

Irailak 29, igandea:

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: XIII. txirrindulari igoera.

Ondoren: Jubilatuentzat hamaiketako.

17:30etan: Zaldibiko Iztueta Dantza Taldearen saioa.

Ondoren: Asto lasterketa.

Jarraian: Tikitixa.

Irailak 30, astelehena:

20:30etan: Herri afaria Xabier Zeberio eta Mikel Mendizabalen bertsoak entzunez.

BEASAIN

Aurtengo udazken kulturalerako dantza ikuskizun berria prestatzen ari da Aurtzaka dantza taldea: 'Dantza berriak, doinu berriei jarriak'. Ikuskizunak badu nabarmentzen duen berezitasunik, erabat eta goitik behera koreografia berri eta ezezagunez osatua izango baita. Koreografia hauek taldeko partaide den Mikel Sarriegik sortu ditu, gaur egungo kantari eta konposatzaile ezagunen musikaz baliatuz. Beste batzuen artean: Mikel Laboa, Imanol, J.I. Ansorena, Ruper Ordorika, Kepa Junkera edota Xabier Sarasola beasainarra eta Aitor Furrundarena ordiziarrenak.

Azkenaldi honetan nagusitu den euskal dantzaren prestigio maila bajuaz kezaturik, kasu honetan, ahalegin aparta egingo da eszenografia eta aurkezpen kalitate-maila bereziki zainduak izan daitezen eta dantza ekitaldietan oso ohikoak ez diren baliabideez jantzia da 'Dantza berria, doinu berriei jarriak' izeneko ikuskizuna. Besteak beste, Ordiziako Jakintza eta Beasaingo Aurtzaka taldeetako 30 dantzari baino gehiagok parte hartuko dute.

Aukera ona izango da, beraz, datorren azaroaren leian, Usurbe Antzokian taldearen emankizun berritzaile eta original hau ikusteko eta gozatzeko.

Aurtzaka ikuskizun berria prestatzen



Aurtzaka dantza taldea 'Doinu berriak, dantza berriei jarriak' ikuskizuna prestatzen ari da udazken kulturalerako. Mikel Sarriegi dantzariaren koreografia landuko dute.

Erretiratuen bazkaria

Irailaren 29an, Erretiratuei omenaldi-bazkaria eskaniko zaie, Antzizar Kiroldegian, 13:30etan. Joan nahi dutenek ondorengoa egin behar dute: izena eman Udaleko Harrera bulegoan, NANA erakutsiz eta 300 pezetaren truke. Beasainen bizi diren 65 urtez goitiko pertsonak eta beren ezkontideek eman dezakete izena.

EPA

Helduen Heziketa Ikastaroetan parte hartu nahi izanez gero, irailaren 30 aurretik (arratsaldeko 3etatik 7etara) eman behar da izena, Loizapen Ikastetxean. Irakurtzen eta idazten ikasi, ezagupenak gaurregunatu, Eskola-graduatu titulua lortu, Lanbide Heziketako (F.P.I) froga prestatu eta ekintza kulturaletan parte hartzea eskaintzen du EPAk. Guztia, dohainik. Informazio gehiagorako telefonoa: 88 87 58.

Antzerki tailerra

Antzerki tailerrean ikasitakoaz edonork gozatzeko aukera dugu. Ordizia, Lazkao eta Beasaingo udalek Udazkeneko Antzerkia antolatu baitute. Irailaren 13an Ordiziako tailerrak eskaini behar zuena, urriaren 4ra atzeratu da. Herriko aktoreen lana hila 20an, Ordizian eta 26an Lazkaon ikus daiteke.

Izaskun Salazar

Udal tailerrak martxan

Udaldiko oporren ondoren eskulan eta dramatikoko udal tailerrak berriro ere berean hasiko dira. Tailerretan lau aukera ezberdin daude: zeramika eta esmaltatua; joste eta ebaketa; marrazkia eta pintura; eta antzerkia.

Zeramika eta esmaltatua Mariano Palenzuelaren zuzendaritzapean irakatsiko da, buztina tenkina ezberdinez lantzen eta alfareria tornua erabiltzen. Eskulan mota hau oroimena bultzatzeko eta lantzeko baliagarria da. Klaseak urriaren 3an hasiko dira. Hilabeteko 1.200 pezeta kostako da.

Joste eta ebaketa tailerra Pilar Mujika Insaustiren zuzendaritzapean emango da. Tailer honetan oihalen eta abarren gastuak ikasleak ordaindu beharko ditu. Klaseak urriaren leian hasiko dira. Prezioa 2.000 pezetakoa da.

Marrazki tailerrari dagokionez, Jokin Telleriak zuzenduko du eta taldeak adin ezberdinen arabera osatuko dira. Irailaren 26an bilera egingo da.

Arte eszenikoaren alorra landu nahi dutenek, berriz, Rosa Rojo eta Ane Garmendia aktoreak zuzentzen dituen antzerki tailerrera jo beharko dute. Tailer honetan lortu nahi dena da, antzerkiari bere arlo guztietan inguratzea eta indar ematea, horretarako taldearen batasuna, erlajazioa, arnaske-ta, gorputz espresioa, ahotsa, espazioaren kontzientzia eta sorkuntza, eta beste zenbait arlo landuko dira.

Izena emateko edo informazio gehiagorako jo Udaleko Kultur sailera edo 88 50 51 telefonora deitu.



GAINTZAKO UDALA



Jai zoriontsuak herritarroi!

INYELEC

MoviLine

MoviStar

Banatzaille ofiziala

16 07 85

lurre Auzoa

OLABERRIA

LAZKAO

Esparruko jira Sanmielen atarian



Urtero irailaren erdi aldera lazkaotarrek egun berezia ospatzen dugu Esparru mendiaren tontorrean. Festa giro alai batean mendiaz gozatzeko aukera eder hau irailaren 22an izango da aurten.

Esparru mendiak Lazkao, Ataun eta Idiazabalekin egiten du muga. Eguraldiak laguntzen badu, Goierriko bailararen ikuspegi ederra izateaz gain, Aralar, Aizkorri, Usurbe eta Murumendi bezalako mendien edertasunaz ere goza daiteke.

Festa hau orain 49 urte inguru hasi zen ospatzen Esparru mendian. Aurretik beste festa bat egiten zen Lazkaoko "Zelaian", baina debekatua izan zen abertzale kutsu nabarmena zuela eta.

Gaur egun gazte eta heldu ugari hurbiltzen da Esparrura egun zoragarri bat pasatzeko intentzioarekin. Ekitaldi hunkigarriena ikurriñari egiten zaion omenal-

dia izaten da. Jarraian herri kirolak eta haur jokoak izaten dira bertsolari eta trikitilariekin batera. Herri-bazkaria dator ondoren, umore onean igarotzen dena. Arratsalde partean, berriz, dena jaso eta herrira bueltatzeko garaia iristen da.

Egun on bat igaro nahi duenak, beraz, igandean bertara hurbiltzea besterik ez dauka. Hori bai, mendia errespetatu eta garbi uzten saiatu behar da, datorren urteko jira ere arrakastatsua izan dadin.

Egitaraua:

9:00etan: Esparrurantz irteera.

11:30etan: Ikurriñari omenaldia, aurreku eta bertsoen laguntzaz.

Ondoren: Herri kirolak eta haur jolasak.

14:00etan: Herri-bazkaria.

18:00etan: Itzultzeko garaia.

*Koldo Urrestarazu
Urko Irastorza*

Sanmiel jaiak

Irailak 21, larunbata:

17:30etan: Sagardo dastaketa herriko elkarteek banatuta.

Irailak 22, igandea:

9:00etan: Esparruko giraren irteera.

12:00etan: Antomodelismo proba plazan.

Irailak 24, asteartea:

15:00etan: Marrazki arratsaldea eta txokolatada partaideentzat.

Irailak 25, asteazkena:

16:00etan: Street Basket, plazan.

20:00etan: Lera txakurra ikusentzunezkoa, Udaletxean.

Irailak 26, osteguna:

21:00etan: Beasaingo Udal Antzerki Tailerraren 'Uderdi gau gabeko ametsa', Maizpideko Zineman.

Irailak 27, ostirala:

19:00etan: Neska arteko areto futbola kiroldegian.

20:00etan: Rock kontzertua, plazan.

Irailak 28, larunbata:

17:00etan: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak, plazan.

19:00etan: Buruhandiak, Antzar Gazteak txistulariekin.

21:00etan: Herri afaria.

23:00etan: Trikitbeltz trikitixa taldea, plazan.

Irailak 29, igandea:

12:00etan: Meza San Migel Parrokian. Lazkao abesbatzak abestuko duelarik.

12:30etan: Pelota partiduak, finalak.

13:45etan: Jubilatuentzat autobusen irteera Victor jatetxera.

13:30etan: Antzar Gazteak txaranga herrian zehar.

14:00etan: Herriko jubilatuen bazkaria.

17:00etan: Oin Arin eta Lizarrako Larratza dantza taldeak, plazan.

19:00etan: Buruhandiak, Antzar Gazteak txistulariekin.

Urriak 30, astelehena:

20:00etan: Asia ikusentzunezkoa, Udaletxeko Areta Nagusian.

ALBOKA
taberna



Uhaitz, 2 ☎ 88 71 97
LAZKAO

ANSOATEGI
HERRIKOA

Sanmiel zoriontuak herritarrei eta kanpotik etortzen direnei

☎ 88 68 52 Elozegi, 15
LAZKAO

ESTANKO
TABERNA

Sanmiel zoriontsuka denoi!

Elozegi, 17 **LAZKAO**

IDIAZABAL

Jubilatuen eguna hilaren 22an

Igandean, irailaren 22an, ospatuko dute herriko edade-tuek beraien eguna. Urtero bezala Guraso Elkartek antolatuta hainbat ekitaldi izango dira egun horretan jubilatuentzat.

Eguerdiko 12etan meza izango da eta ondoren bazkaria eskainiko zaie Kiroldegian. Trikitilariak eta txistulariak alaituko dituzte bazterrak. Gaixorik edo ezinduta daudelako bazkaria joaterik ez dutenek ere izango dute egun horren oroigarria, etxera bidaliko baitzaie opari bat. Guztira 300 lagunentzako jaia antolatu du Guraso Elkarteko Batzordeak.

Ordizian sarituak

Ordiziako azoka berezian herriko 5 lagunek lortu zituzten sariak. Domingo Goi-buruk lortu zuen azoka horretako saririk preziatuena, berak irabazi baitzuen gazta lehiaketa. Azken 10 urtean gazta txapelketa irabazi du-tenen artean egindako lehiaketan Jesus Mari Imazek hirugarren saria lortu zuen.

Ramon Aseginolazak iaz bezala fruituen lehiaketako lehen saria eskuratu zuen. Asier Alberdik Euskal oiloaren txapelketako lepagorrien saileko saria lortu zuen.

Orain baino lehen ere sari ugari lortu duen Pedro Kata-rain izan zen ganadu sailean pirenaika arrazako lehiaketa-ko txapelduna.

Helduentzako eskola

Idiazabalgo Helduen Esko-lak aurtengo ikasturterako ondoko lau ikastaro antolatu ditu: idazten eta irakurtzen ikasteko klaseak, Eskola Graduatua lortzeko ikastaroa, gustokoak diren gaiak lantzeko aukera (Inglesa, mekanografia...) eta azkenik Lehen Mailako Lanbide Hezkuntzarako prestatzeko-modua (klinika laguntzaila...)

Izena emateko epea zabalik dago irailaren amaiera arte. Izena eman edota informazio gehiago lortzeko udaletxera deitu dezakezue (18 71 00).

Jakoba Errekondoren hitzaldiak

Kultur astean Jakoba Errekondok landareei buruz emandako hitzaldiak herritar askoren jakinmina piztu zuen eta udazken aldera hitzaldi sorta bat antolatzeko-tan geratu zen Kultura-batzordea. Hitzaldi sorta hori urriaren 3an hasiko da, iluntzeko 8etan, Kultur Etxean.

Landare kontuetan aditua da Jakoba Errekondo, eta bere hitzaldietan etxe barruko landareak, baratza eta sor-roa eta frutarbolak izango ditu hizketagai. Bertara joa-ten direnei sortzen zaizkien galdera eta kezak ere argi-tuko ditu.

Xabier Urteaga



Ursuaranen San Migel jaiak

Irailaren bukaerarekin batera iristen dira Ursuarango festak. Auzokideek antolatuta hainbat ekitaldi izango da irail-eko azkeneko asteburuan.

Irailak 27, ostirala:

19:30etan: Jaiei hasiera emango zaie suziri eta kanpaie-kin.

Ondoren: Afaria.

22:30etan: Mus azkarra.

Irailak 28, larunbata:

12:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Agirre eta Azpillaga bertsolariak eta Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro trikitilariak.

14:00etan: Udaletxe bazkaria.

17:00etan: V. Toka lehiaketa.

Ondoren: Bertsolarien bigarren saioa.

Iluntzean: Afariak eta jarraian trikitixa goizalderarte.

Irailak 29, igandea:

11:00etan: Meza.

12:30etan: Aizkolariak.

14:00etan: Herri bazkaria, Begiristain eta Zeberio bertso-lariak eta Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro trikitila-riekin.

17:00etan: Haur jolasak, trofeo, opariekin eta txokolatada.

23:00etan: Jaiei amaiera emango zaie.

GIROA

taberna

Pintxo ederrak jateko aukera

Areso, 6 ☎ 88 77 40 LAZKAO

ZELATA

TABERNA

Uhaitz, 1
LAZKAO

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



ZALDIBIA

Kurtso berria berandu hasi da



Ordiziako azoka berezian manifestazioa egin zuten, Herri Eskolako ikasle eta gurasoek.

Uda joan eta, urteroko legez, iritsi da lanean hasteko tenorea. Ondo bidez, Lardizabal Herri Eskolako haurrek irailaren 9an ekin behar zioten ikasturte berriari. Ez da horrela gertatu, ordea. D.B.H.(Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaldia) dela eta, Hezkuntza Kontseilaritzak 12 eta 13 urteko haurrak Ordiziako Institutura eramateko bideratu duen plana izan da horren arrazoa.

Plan horren kontra egon da hasiera-hasieratik Lardizabal Herri Eskolako Gurasoen Junta. Era askotako arrazoiak azaldu izan dituzte. Laburbilduta eta beraien hitzetan esateko: "Plan honek herri txikiak, lehenaz gainera, maldan behera ipini eta arazo sozio-kultural izagarri dakartza". Problema hau herri osorena dela pentsatu izan du, gainera, Gurasoen Juntak. Horregatik, Juntarekin batera, Udalak ere gestio bat baino gehiago egin du haurrak, orain arte bezala, 14 urtera arte herrian gera daitezen.

Esate baterako, apirilaren 21an, Euskal Eskola Pu-

blikoaren festa egunean, Gasteizko Mendizorrotzara joan eta beren protesta azaldu ahal izateko, autobusa antolatu zuen, guraso eta parte hartu nahi zuten guztientzat. Era berean, uztailaren 6an Hondarrian, Hezkuntzako Kontseilaria bizi den herrian, 'Oliveri, umeak behar ditugu' lelopean burutu zuten manifestazioa.

Orain arteko ekintzak txit positiboak izan diren arren, nahi adinako fruiturik ematen ez eta klaseak hasi direnean ekintza berriak antolatu beharrean aurkitu dira gurasoak. Irailaren 9an, beste umeak eskolara hasi zirenean, 12 eta 13 urtekoak ere joan egin ziren, nahiz eta irakaslerik ez zegoela jakin. Zuzendariak egoeraren berri hezkuntza-delegatuari eman ondoren, eskolako haur guztiak kanpora atera ziren astelehen eta asteartean. Bestalde, asteazkenean, irailaren 11an, Euskal Jaiaren egunean, Ordizian egin zuten manifestazioa.

Oliveriri beren postura pertsonalki azaltzea zen gurasoen azken helburua.

"Amore eman behar bagenuen ere jakin zezala Zaldibiko eskolarena inposizioa izan dela eta ez herriaren borondatea", azaldu digu Juntaren izenean bere ordezkariak. Oliverik, bere ekipoa lagun zuela, asteazkenean errezibitu zuen Udalaren ordezkariak eta gurasoen eskeari baiezkorik ematea ez

zela posible aurreratu zien. Erantzuna eta egoera aztertzeke bilera egin ondoren, Hezkuntza Sailaren agindua, onartu ez arren, akatatzea erabaki zuen gurasoen asanbladak.

"Guk ez genuen nahi D.B.H. hankaz gora ipintzerik, esfortzu minimun bat egin eta haurrei herrian eustea baizik, laborategi aldetik-eta inbertsio txiki batzuk eginez gero posible baitzen, izan ere 12 eta 13 urteko haurreri lehengo maisu-maistrek emango dizkiete klaseak. Harrigarri samarra bada ere, beste askoren artean, Nekazaritzako Kontseilaritza gure alde zegoen" esan digu, azkenik, gurasoen ordezkariak.

Kontu guzti hauek horrela direla, Lardizabal Herri Eskolan, ikasturte honetan, 90 ikasle eta 12 irakasle izango dira. Normaltasuna itzuli da eta, gurasoen ordezkariak adierazi digunez, hilabete hauetan egin duten borrokari esker, aurrera begira, indarturik atera da Zaldibiko eskola.

Parroki ekintzak

Ikasturte berriaren atarian, Zaldibiko Parroki Elkartek iazko ekintzen balantzea egin eta aurreneko, ahal den neurrian hobetuz, bide bereetik jarraitzeko asmoa agertzen du. Umeen katekesia, ospakizun liturgikoak, gazteen pastoralak, karitas eta gaixoen pastoralak eta helduen katekesia dira jorratu diren alorrak. "Aurrera ere bide bereetik jarraituko dugu", azaldu digu Fidel Tolosak, Parroki Elkarteko arduradun nagusiak.

Honela jarraitu du gero: "Liturgi taldea osatu eta honen bidez kristau-fedea janaritu, katekesiaren bidez kristau eta giza balore positiboak txertu haurrengan, 'Caritas'i esker herriko gaixo eta behartsuekin solidarizatu, helduen katekesiaren bidez parroki elkarte sendoa osatu, eta, azkenik, ebanjelioko hitz sakon eta aberatsei begira lan egin, elizara joaten diren eta ez direnen artean diferentziarik egin gabe, elkarrenganako errespetoan"

Kezka batzuk ere planteatzen ditu: monagiloek al-darea asko janzten omen dute, eta prest dagoenik ballego dei egiten die. Aurreneko D.B.H.n hasi direnei katekesia noiz eman da beste buruhausteetako bat. Honako baieztapen hau ere egiten du Fidelek: "Eliz ospakizunetarako alergia moduko bat nabaritzen da askotan, bizitzan, oro har, dagoen giro hotz eta materialistagatik". Hori gainditzeko, oinarriko giza baloreak esnatu beharra aldarrikatzen du.

Rufino Iraola

GABIRIA

Arantzazuko erromesaldirako deia



Azken urte hauetan bezalaxe, aurtan ere bada Gabiriatik Arantzazurako erromesaldia antolatzeke asmoa eta horretan ari direnak jakinarazi dutenez, erromesaldi hori hil honen 22an, igandean, izango da. Erromesaldi hau egin nahi dutenek, lehenbailehen eman

behar diote izena Edurne Murua andreari.

Bidaia autobusez egingo da eta irteera goizeko 8.45etan izango da. Arantzazun bertan bazkalduko dute eta etxerako itzulera elizkizunak bukatu ondoren izango da, hau da, arratsaldeko 6ak aldera.

Horretaz gain, hilaren 21ean, larunbatean, Gabiriatik Arantzazurako erromesaldia oinez egingo da eta oinezko ibilaldi horretan parte hartu nahi dutenek Errotako Jose Kruze-kin hitz egin behar dute. Irteera goizeko 8ak aldera izango da Zuazola baserri inguruan eta bazkaria Urbiako artzain txabola batean.

Helduentzako ikastaroak

Beasaingo Udalak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren laguntzaz helduentzako ikastaroak antolatu ditu Loinazpe ikastetxean. Beasaingo ikastetxean antolatu badira ere, Gabiriako helduek ere badute ikastaro horietan parte har-

tzeko aukera eta gainera dohainik.

Zentru horretan irakurtzen eta idazten irakasteaz gain, Eskola Graduatua lortu ahal izango da, Lanbide Heziketako frogak prestatu eta eskolaz kanpoko kultur ihardueretan parte hartu, hala nola, irteerak, museotara ikustaldiak, erakusketak eta abar.

Horrela bada, zuen jakintza-nahia ase nahi baduzue Loinazpe ikastetxera hurbildu besterik ez duzue; matrikula irailaren 30era arte egin ahal izango da, arratsaldeko 3etatik 7ak arte edo 88 87 58 telefonora deituz.

Gabino Murua

ZEGAMA 100 urte Maria Agirre Arrietak

Intxausti Zaharrea jaio zen Maria Agirre Arrietak joan den irailaren 9an 100 bete zituen. Jakin dugunez 3 urtez gero Oñatin bizi den emakume honek joan den larunbatean jaso zuen Oñati eta Zegamako udalen omenaldia.

Kilometroak 96, Elgoibarren

Urtero bezala aurtan ere Kultur Etxeak antolatutako autobusa izango da Kilometroak 96ra joateko.

Izen ematea Udaletxean egingo da, urriaren 4an bukatuko delarik epea.

Aitxuri Herri Eskola

Zapata berriak jantzita baino gustorago hasi zaizkigu aurtan haur nahiz irakasleak Aitxuri Eskola Berrian.

Jubilatuen eguna

Aurtan Jubilatuen Eguna urriaren 20an ospatuko da, Udal Gizarte Zerbitzuak eta Jubilatuen Batzordea egun horretarako prestakuntzak burutzen ari dira.

Edurne Albizu

LEGORRETA EPA eta soinketa ikastaroa

● Helduentzako EPA eskola ofiziala

Helduen Heziketarako aukera hauek eskaintzen dizkigu: irakurtzen eta idazten ikastea; zeure kultura orokorra zabaltzea; eta eskola-graduatua lortzea.

Partehartzaileen adina 18 urtetik gorakoa izan beharko da. Matrikula epea irailaren 20arte egongo da zabalik Udaletxean. Argibide gehiago nahi izanez gero Udaletxeko 88 62 25 telefono zenbakira deitzea besterik ez daukazu.

● Soinketa ikastaroa

Urtesasoi honetan ohizko den bezala, Udalak, Mantenimenduzko Soinketa ikastaroa antolatu du. Hori dela eta, iharduera horretan parte hartu nahi duen orok Udaletxeko bulegoetan izena eman beharko du irailaren 27a baino lehen, bere intereseko izango litzatekeen ordutegia adieraziz.

Badirudi beraz, garuneke zein gorputzeko giharrak astintzeko moduan gaudela. 'Mens sana in corpore sano' ba al da aukera hobeagorik?

Josune Amondarain

SEGURA

Iaz baino 28 haur gutxiago eskolan



Aurten 1go aldiz eskolan hasitakoak. Eserita, ezkerretik eskubira: Maialen Urbizu, Lander Ugalde, Maider Gisasola, Idoia Biain, Janire Garmendia, Ainitze Arretxe eta Uxue Arizkorreta. Zutik, ezkerretik eskubira: Asier Korta, Miren Mujika (mutiloarra), Jon Elorza, Nagoire Ormazabal eta Olatz Telleria. Argazkian, urte berekoa den Lierni Muñoa falta da.

Irailaren 9an hasi zuten Laiotz Herri Eskolako ikasleek 96-97 ikasturtea. 3 astez goizez bakarrik arituta, hilaren 30ean hasiko dira goiz eta arratsalde. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren erreforma dela eta, irakaslearen prestakuntza eta metodologia aldatzeaz gain, zikloak ere aldatu direnez, neska-mutikoak 12 urte arte egongo dira herriko eskolan, eta ez 14 arte azken urteetan bezala. Beasaina joatea beharturik dauden 12 eta 13 urteko ikasleak 24 dira, hauetatik 22 Loiznazpera doaz eta 2 Lizeora. Iaz 8.a amaitu zutenak, berriz, 14 dira; 6 Lanbide Heziketara joan dira eta 8 Batxilergora.

Zikloen aldaketak Herri Eskolako haur zein irakasle kopurua murriztea ekarri du. Ikasleak 113 dira, iaz baino 28 gutxiago; irakasleak, berriz, 13, 2 gutxiago. 97 haur dira segurarrak, 9 zeraindarrak eta 7 mutiloarrak. Haur Hezkuntzan 34 ari dira eta Derrigorrezko Lehen Hezkuntzan 79. Goi-ko eskolan D.L.H.ko 2. eta 3. zikloko 57 neska-mutiko

ari dira, behekoan, berriz, H.H.ko eta D.L.H.ko lehen zikloko 56. Aurten lehenengo aldiz eskolaratu direnak 13 dira, orain 3 urte jaiotakoak.

Hamarkada honetako ikasle kopuruaren joera, piskanaka bada ere, jeitsiz doa: 90ean 190, 91n 177, 92an 169, 93an 158, 94an 156, 95ean 141 eta 96an 13 eta 14 urtekoak kontatuta, 137.

Ehiz postuak

Irailaren 8an Segurako Udaletxean egindako Partzoneriko ehiz postuen sustan, 10 ordainduenak ondorengoak izan ziren: Apota 10: 855.100 pezeta, Agiñaran 4: 734.000, Apota 12: 641.111, Larrebil 17: 621.500, Larrebil 19: 602.156, Agiñaran 0: 575.100, Apota 8: 550.000, Larrebil 7: 525.000, Larrebil 15: 500.000 eta Agiñaran 6: 493.333.

Felix Goiburu

Irailaren 11n, Ordiziako XXIII. gaztai txapelketan, iazko irabazlea izan zen Felix Goiburu, 75 parte hartzaileetatik 6.a geratu zen.

Soinketa

Udalak antolatuta eta Imanol Etxeberria beasaindarra irakasle dela, irailaren 9an hasi zen lehenengo emakume taldea soinketa klaseetan. 17 lagun aritzen dira frontoian, astelehenetan, asteazkenetan eta ostegunetan 19:45etatik 20:45etara. Goizetako taldea urrian hasiko da eta izen ematea frontoian bertan egin behar da. Iaz 54 lagun ibili ziren 2 taldetan.

Eskulan ikastaroa

Hau ere Udalak antolatuta eta Iñaxi Urreta zegamarrak zuzenduta, urriaren erdi aldera hasiko da 5. aldiz, eskulan ikastaroa. 35 orduko 2 ikastaldi izango dira, Txanbolinpe gainean, astelehenetan 14:30etatik 17:00etara talde bat eta asteazkenetan 17:00etatik 19:30etara beste. Iaz, bi taldetan 28 lagun aritu ziren.



Euskadiko Monumentu Nazionala deklaratu dagoen XV. mendeko Gebara jauregi gotikoari irailaren 4an jarri zioten guzti hori adierazten duen plaka. Gipuzkoan 40 eraikuntza dauka Monumentu Nazional izendatuak, horietatik 2 Seguran, Eliza Nagusia eta Gebara Jauregia.

Jubilatuak

***Irailaren 17an** eskurtsioa izan zuten jubilatuak. Bi autobus atera ziren eta, besteak beste, Hondarribia, Arantzatz eta Bertiz bixitatu zituzten.

***Irailaren 22an** urteroko jubilatuak bazkaria izango da. Parrokiko 12:00etako mezaren ondoren bazkaria izango dute Zumarragako Etxeberrin.

***Irailaren 28** goizean Beasainen izango den 10 kilometroko jubilatuak ibilaldi neurtuan, 4 laguneko 2 taldek parte hartuko dute Atsedenetik. Loren Ariztimuño, Joxepa Telleria, Euxebi Iztueta eta Anttoni Aldanondo alde batetik eta Martxeliño Murua, Xabiñ Aldanondo, Joxe Mari Auzmendi eta Joakin Izagirre bestetik. Sari banaketaren ondoren bazkaria izango da Antzizar Pelotalekuan.

Gazte Asanblada

Sortu berria den S.G.A.ren aurkezpena eginez eta bere sorreraren arrazoiak azalduz, gazteen beharrez eta eginbeharrez, mahaingurua antolatu zen irailaren 18an, Kultur Etxeko joko gelan. Bertan, 25en bat gazte bildu ziren eta lehenengo ondorio nagusia, elkartu ahal izateko toki baten beharra izan zen.

Bertsolari gazteen topaketa

Gipuzkoako Bertsozale Elkartek antolatuta eta Gipuzkoako Ikastolen Elkartaren laguntzaz, Euskal Herri osoko 80ren bat bertsolari gazte espero dira Segurako aterpetxean, irailaren 20 eta 21ean izango duten bertsolari gazteen II. topaketan.

Joseba Telleria

ALTZAGA

San Migel jaia 96

Udazken hasiera honetan, San Migel jaia ospatuko ditugu, irailaren 27 hasi eta 29a bitarte; bertan, trikitilariak, bertsolariak, txistulariak etab. izango ditugu, eta aurtengoan berrikuntza bezala euskeraz abesten duten Napar jotero talde bat izango dugu, "Montaña y Ribera taldea"

Argazki zaharren erakusketa ere izango da, iaz "Artea" elkartearen zilar ez-taiak zirela eta osaturiko erakusketa jarriko delarik berriro ere ikusgai.

Irailak 27, ostirala

20:30etan: Txupinazoa

21:00etan: Afaria **Ondoren:** Trikitixa, Goiatz-Sara.



Irailak 28, Larunbata, Jubilatuen Eguna

12:00 etan: Meza Nagusia

14:00etan: Herri Bazkaria, Eguskitze eta Sarasua Bertsolari eta trikitilariekin.

18:00etan: Haur Jolasak.

19:00etan: Toka Txapelketa herrikoia.

22:30etan: Nafarroako Jo-

tak euskeraz "Montaña y Ribera" taldea.

Ondoren: Etzakit Taldearekin erromeria

Goizaldera: Langostino Jatea, Artea Elkarte

Irailak 29, Igandea:

10:00etan: Goiz Eresia Alegiko txistulariekin

12:00etan: Meza Nagusia

18:00etan: aizkolari saioa. Iñaki Azurmendi, Arriarangoa, 23 urte; Xabier Orbegozo, Errezilgoa, 19 urte; Unai Otaño, Ibarakoa, 22 urte; Axen Urretabizkaia, Altzagakoa, 32 urte.

Ondoren: Sagardo Dastaketa eta Trikitilariak, Lazkanoiturburu Bikotea.

24:00etan: Festei amaiera emateko baratzuri zopa

"Egun honetan Argazki Zaharren erakusketa egongo da Udaletxean".

Oharra: Herri afari eta bazkarian partu hartu nahi dutenak Artea Elkarte dute izen emateko orria.

Pako Zubeldia

ATAUN

Izerditan blai! Hasi dira Jubilatuen eta gazteagoak gerri-ondoa biguintzen. Herriko Kirol Zerbitzuak ugaltzen ari dira eta "kurtso" honetatik aurrera 7 makinez osatutako gimnasioa jarri dute Auzoeta Kiroldagian. Goiz eta arratsalde irekita egongo da. Makina hauek erabili nahi dituenak, 4.500 pezeta ordaindu beharko ditu hiru-hilabeteko.

Hasi dira aurrean ere, jubilatuentzat prestatu diren ikastaroak. Astearte eta ostegunetan dira saioak, arratsaldeko 6etan. Jubilatuen kuota, 1.500 pezeta da hiruhilabeteko.

Eta urriaren 2an hasiko dira mantenimendu klaseak. Astelehen, asteazken eta ostiralez izango dira, arratsaldeko 6etan. Hauek 4.500 pezeta ordainduko dute hiruhilabeteko.

San Gregorion hasita dituzte denak batera, Jubilatuen eta Mantenimendu klaseak.

Horrezaz aparte, futbito, pilota eta abar erreserba egin nahi duenak, jo beza telefono hauetara: Auzoeta Kiroldagia: 180384; Zelai Frontoia-Sutegi taberna: 180354.

Ibilaldi polita

125 mendizalek hartu zuten

Sasoi bila

parte, irailaren 8an Aia auzoan egin zen Ibilaldi Neur-tuan. Kirol Elkarteak antolatu zuen ibilian Bera, Irun, Andoain, Usurbil, Ordizia, Beasain eta abarretatik etorritako jendea izan zen. Eguraldi ona izan zuten 51 taldeek.

Lekurik atseginenak Agautz aldea, Sastarriko koba, Ubediko leizea, Lareoko urtegia eta Aiaturrieta aldeko hariztia aipatu zituzten mendizaleek.

Kejak ere izan ziren: markaketa egiteko paperak lurrean eta publizitate-zintak so-bran daudela etabar.

II. Ataun aztergai beka

Irailaren 30ean amaituko da proiektuak aurkezteko epea. Aurkeztu diren lanen artean, lan bat aukeratu da astebeteko epean. Hori bai, aurkezturiko proiektuek mailarik ez dutela ematen erabakiko balitz hutsik utzi ahal izango da bekaren kontzesioa. Beka, gogoratu, 200.000 pezetakoa. Lana abenduaren 7rako amaitu beharko da eta orduan jasoko du egileak beka.

Jon Aizpurua



ALTZAGAKO UDALA

Herriar guztiei eta egun hauetan bi-sitatuko gaituzunei feta alai eta zorion-tzak opa dizkizuet.

Alkateak

ALTZAGARATE JATETXEA

- Eguneroko bazkariak
- Bataio, jaunartze, ezkontza...
- Udazken-negu sasoiaren babarrunak, bere lagungarri guztiekin

☎ 88 41 96

ALTZAGA

Joxemi Perez eta Joxean Mendizabal: ultraligeroz hegan egiteko zaletasuna

Ultraligeroarena, aireko beste hainbat kirol bezala, ez da batere ezaguna gure artean. Baina Goierriin bertan baditugu bi lagun, Joxemi Perez eta Joxean Mendizabal, azken 5 urteetan kirol hau praktikatzen ari direnak. Beraiekin hitz egin, ultraligeroak gertuagotik ezagutu eta hegan egiteko aukera ere izan dugu.

G.- Zer da ultraligeroa?

E.- 200 kilo baino gutxiagoko pixua duen eta hegan egiten duen aparagailua da ultraligeroa. Gurea pendularra da hau da grabitate zentrua aldatzen dela giratzeko, aireratzeko edo lur hartzeko (motordun delta hegal baten modukoa da). Ba daude 2 edo 3 ardatzekoak ere, hauek abioneten antzeko sistema dute, palanken bidez.

G.- Nola hasi zineten?

E.- Lehenengo delta hegalaz hegan egiten hasi ginen. Ultraligeroa garesti iruditzen zitzaigun eta eskuragarriagoa zen delta hegala. Gainera, ultraligero mundua ez zen ezaguna guretzat. Ondoren praktikotasunagatik parapentea erosi genuen. Gero ultraligeroa pilotatzen ikasteko aukera izan genuen, baita aprobe txatu ere. Airean ahal zen denbora gehiena ibiltzeko gogoa baike nuen.

G.- Bide hau al da, ultraligerora iristeko ohizkoena?

E.- Jende gehiena zuzenean



Joxean Mendizabal zaldibitarra eta Joxemi Perez lazkaotarra aspaldidanik dute gustoko hegan egitea.

hasten da, bi iharduera ezberdin baitira. Zenbait gu bezala delta hegal mundutik etortzen dira eta beste batzuk berriz abioneta teledirigituetatik.

G.- Ze prestakuntza behar da?

E.- Karneta atera behar da. Honetarako 10 bat ordutako ikastaro praktikoa egin behar da, ikastaro teorikoaz gain. Lehenengo atzekaldean hega negiten da, ordu pare bat, atzetik gidatzen hasten da. Gero aurrean eserita gidatzen da, beti irakaslearen laguntzarekin. 10 bat ordura bakarrik hegan egiteko moduan zaude.

G.- Garestia al da?

E.- Guk orain dela 5 urte 100.000 pezeta ordaindu genuen ikastaroa eta 25.000 azterketa. Orain 180.000 kostatzen da dena. Hau aerodromo ofizialetan egiten da. Euskal Herrian batere ez dagoenez, guri lagun batek

erakutsi zigun eta Valentziara joan ginen azterketa egitera.

Aparagailua, bigarren eskukoak, milioi erditik aurrera lortu liteke. Eserleku bakarreko berria milioi inguruan ibiliko da, bi eserle-

"Eguraldiak gain, beste eragozpen nagusi bat dugu. Behar bezalakako aerodromo baten eza"

kukoak, berriz, 1,5 - 2,5 milioi tartean. Hainbat hego eta motor moeta daude. Gurearen gurutzaldi-abiadura orduko 60 kilometrokoa da, beste batzuk 110eraino iristen dira. Hori hegoaren neurriaren arabera da. Hego txikiagoarekin, abiadura handiagoa.

Mantenimendua, berriz, moto edo kotxe batena bezalakoa da, baina atentzio eta maiztasun handiagoarekin. Adibidez, bujiak 10 orduero aldatzen dira, iraun

dezaketaren hamarretatik bat da hori. Kotxe edo moto baten motorra geratu ezkeror lurrean geratzen zara, ultraligeroan berriz airean geratzen zara. Planeatzeko posibilitatea badago, baina, hemen lur hartzeko leku ordeka bat aurkitzea oso zaila da. Dena den jausgailu edo parakidas bat eramaten da, hausturaren bat egonez gero, zuzenean erortzeko. Motorra geratuz gero aterrizatu egin behar da, ez jausgailua atera.

G.- Hor dago orduan arriskuaren mamua. Batez ere zuen ingurukoentzat.

E.- Amak nerekin hega egin du --dio Joxemik--. Beti dago zerbait, ez da lurrean egotea bezala, baina batez ere mentalitate kontua da. Beti txarrean pentsatuz gero ez genuen hega egingo.

G.- Normalean non hegan egiten duzue?

E.- Itziarren, Industrialdean esplanada handi bat dago eta leku egokia da. Itsasoaren ondoan dago eta haizea laminarra eta leuna da, barrualdean haizea nahasiagoa izaten da. Gainera Donostia eta Lekeitio artean oso paraje ederrak daude.

Hemen, inguruan, ez dugu aireratu eta lur hartzeko leku egokirik aurkitu. Batzuetan, Itziartik hamaiketa-koarekin ateratzen gara biok, hona etorri Goierri gainean buelta batzuk ematen ditugu, Enerion lur hartu, zerbait jan eta Itziarra



Ultraligeroa aireratzeko momentua.

itzultzen gara.

G.- Ze distantzi hegan egin liteke? Ze abiadura eta altueratan?

E.- Gutxi gora behera 6 orduko autonomia du. 38 litroko gasolina depositua baitu. Gureak 60-80 kilometro orduko abiadura hartzen du. Altura, non hegan egiten dugunaren arabera, baina teorikoki, hegan egiteko sabaia, inguruko puntu altuena baino 300 metro gorago daukagu. Adibidez inguru honetan Txindoki baino 300 metro gorago izango litzateke. Gainontzean, motorrera oxigeno ezagatik geratu arte igo liteke aparatua. Egiten ditugun trabesietan 1.000 metro inguruko altueran ibiltzen gara.

G.- Noraino joan zerate hegaka edo hegan egitera?

E.- Hegaka, urrutiena Ene-

rioraino etorri gara. Burutik pasa izan zaigu Espainiari bira ematea, egunen batean egin beharko dugu. Urtero Valladolidera joaten gara hegan egitera, Valentzian ere izan gara.

G.- Zein da hegan egiteko leku egokiena?

E.- Orain arte onena Valladolidekoa. Dena ordeka da, kableak ere hemen baino askoz ere gutxiago dira eta ikaragarritzko seguritatea dago. Han naiz eta motorra geratu edozein lekutan lur hartu liteke. Hemen kable eta posteak arazo bat dira. Poste asko berdez margotuta daude eta oso zaila da airetik ikustea. Kableak ez dira ikusten, posteak ikusi eta pentsatzen da tartean kableak daudela.

Hemen paisaje aldetik politagoa da, baina hegan egiteko hura egokiagoa.

Nik ikusi dudak gauza politena, Igeldo gainetik Kontxara sartzea da. Hemen joan eta etorri ibiltzen zara, paseatu egiten duzu. Valladoliden, berriz, disfrutatze-ko egokiagoa da, edozein gauza egin liteke: lurraren arrasetik pasatzen zara, altuera hartu eta motorra geratu dezakezu, behera iristen ari zereanean arrankatzen duzu eta ez bada arrankatzen edozein lekutan gertatzen zara, berriro irtetzen zara... Hori hemen ezinezkoa da egitea, gainera mendi artean turbulentziak sortzen dira, itsasoan berriz haizea berdina da eta egokiagoa.

G.- Eguraldiaren eragozpena duzue. Nahi baino gutxiago hegan egiten al duzue?

E.- Eguraldiaz gain, beste eragozpen nagusi bat dugu. Behar bezalako aerodromo baten eza. Bertan aparatoa

montatuta egotea, joan atera eta zuzenean hega egiteko moduan. Guk etxeko garajetik atera, kotxean jarri, eraman, montatu, hega negin, desmontatu, fundak jarri, hegoa kotxe gainean lotu, etxera ekarri, garajea sartu, ordu mordo galtzen dugu.

G.- Goierrin bakarrik zarete ezta?

E.- Iaz ordiziar bat hasi zen, baina hura Santanderra joan da hega egitera. Gipuzkoan ere 4 bat aparatua egongo dira, ez gehiago. Aerodromo baten faltan oso zaila da jendea honetan hastea. Ezin da kurtsilorik eman, karnetik atera... Jende askok du hegan egiteko irrika, eta ez da batere zaila hegan egitea. Bakarrarentzat garesti ateratzen bada ere jendea batu eta elkarte bat sortuz gero, ez da batere garesti ateratzen.

Mikel Albisu



Getaria aietatik ikusita. Normalki Gipuzkoako kostaldean hegan egiten dute, noizean behin Goierrri aldera etortzen badira ere.

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak

Esuskal Herria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15
☎ 16 07 07

ORDIZIA
OLABERRIA

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1


☎ 88 51 68

ORMAIZTEGI

Aitor Zurutuza beasaindarra Dallasen

1990ean, hiru hilabete-rako joan zen Dallasko Unibertsitatera Aitor Zurutuza, Deustuko Unibertsitateak elkartrukean egindako programi bati esker. Ekonomia eta Enpresaritzari ari zen ikasten beasaindarra. 3 hilabete ondo xamar pasatu eta Masterra egiten hasi zen beste urtebetean. Praktikak egiten hasi eta oraindik Dallasen dugu lanean. Dallasen bizi da. Bertako batekin ezkondu eta lan semea ere izan du. Momentuz, itzultzeko asmo handiegirik ez du. "Nahiko ondo moldatu nintzen lehenengo momentutik. Nahiko erraza zen niretzat hango bizitzarekin jarraitzea. Hemendik joan aurretik buruan neukana eta han topatu nuen ez zen gauza berdina. Zenbait gauza ezin dira han denbora bat pasatu artean ulertu", dio Aitorrek.

'Frit o lay' konpainiarantz ari da lanean duela 3 urtez geroztik. Snacks patata frijituak eta horrelako produktuak egiten dituen enpresa da. Pepsi-cola da bere jabea. "Konpainia berekoak gara baina ez daukagu zerikusirik Pepsi-colarekin. Coca-colak ez dauka gure enpresa bezalakorik. Pepsi-colak enpresari urtero-urtero % 20eko irabaziak izan ditzagun exijitzen digu. Helburu altu eta gogor horiek, jendeak gogo-



Aitor Zurutuza Caroline emaztearekin eta lan semearekin.

rrago lan egin dezan jartzen dituzte". Espainiako Matutanoren antzerako enpresa omen da. Matutano 'Frit o lay' ren parte da une honetan. "EEBBetan patata asko jaten da. Merkatuaren % 60 kontrolatzen du gure enpresak. Konpainia honek dauzka beste herrietan beste enpresa batzuk, Matutano...", argitu digu. Aitorrek bulegoan egiten du lan, informazio sisteman. Ordenadorearekin enpresak behar duen informazioa bildu eta banatzen du.

Politikak garrantzia gutxi

Hauteskunde kanpainan bete-betean sartuta daude estatubatuarrak. Dena den, "politika alde batera uzten dute. Euskal Herrian politika jende askoren bizitzaren

parte oso garrantzitsua da. Baina EEBBetan bizitza pribatua da gehien axola zaiena". Beasaindarrak iragarri digunez, momentu honetan Clinton aurretik badao ere, kanpainaren buketan pare-parean izango dira bi hautagaiak.

Aitorren esanetan, "nazio bezala sudurra leku guztietan sartzen dute, baina jendea gauza askotan, hemengo bezalakoa da. Nazio gaztea da, beraien kultura da, ez dutela nahi Gobernuaren interbentziorik beraien bizitzan, ekonomia oso kapitalista da. Hemendik joan zen jendea Gobernuaren interbentziorik nahi ez zutelako. Herria oso handia denez, aukera asko dago nahi dena egiteko. Be-

raien gogoia da, beraien negozioak hasi eta aurrera joatea".

Gizartean ezberdintasun handia dago. "Ekonomia maila konkretu bat daukanak ez du arraza arazorik izango, oztopo gehienak gaitzuta baititu. Baina dirurik ez eduki eta arraza minoritario batekoa bada, arazo bikoitza izango du", dio Aitorrek.

Euskara-Euskal Herria

Dallasen ez du beste euskaldunik ezagutzen beasaindarrak. Espainiarrak bai. Semeari euskaraz eta ingelez egiten dio. Geroago erakutsiko omen dio gaztekeraz. Internet sareari esker, Euskal Herriko berriak jasotzen ditu.

Hemengo lagunen falta nabari izaten omen du. Baina "erosotasun" gehiago bilatzen ditu Atlantikoaz bestalde. "Dendak edozein momentutan izaten dira zabalik eta hona etortzen naizenean horrek harritzen naiz. Hemen eguna planifikatu egin behar da erosketak eta egiteko. Han ez. Bestetik, bizi maila altuagoa da. Diru gutxiagorekin gehiago egin dezakezu. Txalet bat, hemengo pisu baten prezioan daukazu. Han nahiko erraza da etxea erostea, ez hemen bezala".

Loinaz Agirre



ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
88 09 47

Iurre Auzoa
OLABERRIA



GOITGI
OKINDEGIA

Ogigintzan onenak!

Etkezaretara z/g
ORDIZIA 160501

- ◆ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea,2
ZALDIBIA 880737



1940ko Beasain Futbol Taldea

Tolosa eskualdeko txapeldun izan zen 1940an Beasain Futbol Taldea. Karmen Arsuagak utzi digu argazkia. Txapelketa irabazi zuten hamaikako titularra hauxe duzue:

Zutik: 'Palanke' Martinez, Cacho, Antonio Aranburu 'Belauste', Pako Elzo, Valdivielso, Benjamin Esnaola eta Aristeo Ruiz.

Makurtuta: Txetxin Iruretagoiena, Damaso Ruiz de Asua, Uria eta Jose Mari Zabaleta.



- ✓ Liburuak
- ✓ Jostailu didaktikoak
- ✓ Eskola materiala
- ✓ Bulego materiala
- ✓ Fax zerbitzua

Elosegi, 16

☎ 88 65 00

LAZKAO

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Edredoiak
Mantak - Maindireak - Mahai oihalak
Toailak - Gortinak eta osagaiak

M. Zeberio
☎ 88 00 84

J. M. Barandiaran Plaza
ORDIZIA



ORDIZIAKO
UDALA

96 - 97 KIROL EKINTZAK

AEROBIC-a

Astelehen, asteazken eta ostiralean, 9-10, 10-11, 15-16, 18-19, 19-20 eta 20-21etan.
Astearte eta ostegunean, 15-16, 19-20 eta 20-21etan.

MANTENU GIMNASIA

Astelehen, asteazken eta ostiralean, 19-20etan.

MANTENU GIMNASIA LEUNA (3. adina)

Astelehen eta asteazkenean 16-17etan.
Ostiralean 12-13etan.

IGERIKETA

Astelehenetik ostiralera 9-10etan.
Astelehen, asteazken eta ostiralean 20-21etan.
Astearte eta ostegunean 20-21etan.

JUDO

Astelehen eta asteazkenean 17-18 eta 18-19etan.

GIMNASIA ERRITMIKO eta PSIKOMOTRIZITATEA

Astelehen eta asteazkenean 17-18etan.
Astearte eta ostegunean 17-18 eta 18-19etan.



Polideportivo
MAJORI
Kiroldegia

☎ 88 93 33

ORDIZIA

☎ 88 93 53

GOIERRIKO GOIZTIRI EUSKALTEGIAK

EUSKARA IKASI ALA HOBETU NAHI AL DUZU? GOIERRIKO
'GOIZTIRI' AEK-k, HONAKO HAU ESKEINTZEN DIZU:



- ✓ **ORDUTEGI MALGUAK:** Goiz, eguerdi, arratsalde zein gauekoak.
- ✓ **ERRITMO EZBERDINAK:** 2, 3, 4 edo 5 ordukoak. Baina kontuan hartu euskalduntze prozesua arrakastaz burutzeko trinkotasuna eta iraunkortasuna funtsezkoak direla, beraz gure euskaltegietan erritmo ezberdinetan ikas badaiteke ere, ikastaro intentsiboenak izango dira zuretzat errentagarriagoak.
- ✓ **ZURETZAT EGOKITUTAKO METODOLOGIA:** Kultur sorkuntzan oinarritua. Eguneroko komunikazio egoeretan jartzen dira ikasleak, komunikazio arrakastatsua lor dezaten tresnak jarritz.
- ✓ **BEHAR BEREZIEI ERANTZUTEKO PREST ERE BAGAUDE:** Euskaldunzahar bazara, baina alfabetatu beharra baduzu, Hizkuntz Eskakizunik bete behar baduzu EGA; Hobekuntza eta abar.



ETA HONETAZ GAIN KLASETIK KANPOKO EKINTZAK: Txangoak,
bisitaldi kulturalak, asteburuko irteerak...

EUSKAL HERRIA EUSKALTEGI BIHURTU NAHI DUGU!

ORDIZIA: SANTA ANA IKASTETXEA TEL. 88 91 74
BEASAIN: KALE NAGUSIA 5-3 TEL. 88 93 40
LAZKAO: ELOSEGI KALEA 16-2. (ANSOATEGI) TEL. 88 93 40